



**Adrian Cerezo Sanmartín arkitektoak Vianako gaztelua birtualki berregin du / 2-4**

**Etxarri Aranazko Udalak kanpinean 75.000 euroko inbertsioak egin ditu / 9**

**Sakanako hiru proiektuk Mecna izendapena jaso dute. Haiek laguntzeak zerga pizgarriak ditu / 7**

**'Kronosaren diktadura' diskoa kaleratu du Uharteko Arakilgo Mendikoa rock taldeak / 22**



**Lau sakandarrek hartuko dute parte igandean jokatuko den Etxarri Aranazko Txakurkrolean / 17**



## Elizaren giltzak

Sakanan immatrikulatutako 102 ondasunen zerrenda / 11-13

**Erkuden Ruiz Barroso** (TURMENDI)

Eraikinak eta espazioak nola sortzen ziren jakin-minetik Adrian Cerezo Sanmartínek arkitektura ikasi zuen. Pixkanaka 3D modelazioan eta diseinuan espezializatzen hasi zen, eta jakintza horiek ondare historikoa berrerragiteko erabili zitezkeela pentsatu zuen. Lehenengo proiektu handia Vianan egin du, eta gaur egun desagertuta dagoen gaztelua webgune baten bidez ikus daiteke XIII. eta XVII. mendeetan, baita egungo egoera ere. Ondarearekin zerikusia duten proiektu gehiago ditu martxan.

**Arkitektoa zara. Zergatik?**

Txikitatik gauzak nola dauden eginak jakiteagatik jakin-mina izan dut. Obretatik pasatzean ikusten gelditzen nintzela gogoratzen naiz, planoak ikusten nituen eta horrelako gauzeekin beti gelditzen nintzen: nola zegoen eginga, zergatik, zer espazio zegoen bestearen ondoan, horma horren atzean zer zegoen eta abar. Ikasketak aukeratu behar izan nituean ingeniari-tza aro espaziala egitea pentsatu nuen ere, hegazkinen kontua asko gustatzen zaidalako, baina azkenean arkitektura egitea erabaki nuen, unibertsitatea ere gertuago nuelako.

**Gustatu zitzaizun?**

Ikasketetan oso artistikoa den zati bat baduela ikusi nuen, jendeak hasiera batean ez duena ikusten. Arkitektura aipatzen duzueanean jendeak eraikinak eta planoak ikusten ditu, eta egia esan dena diseinatzean datza: espazio guztiak ahalik eta osatuago egoteko eta testurekin, koloreekin, espazio aldaketekin eta abarrekin emozioak sortzea. Alde artistiko hori ez nuen espero, eta asko gustatu zitzaidan. Espektatibak gainditu zituen.

**3D diseinua ikasi zenuen ondoren.**

Karreraren ez zen derrigorrezkoa horrelako programak edo lan egiteko moduak ezagutzea, baina oso ongi zetozen. Klaseko aurkezpenetan eraikinak 3D irudi hauetan aurkezten geroz eta gehiago ikusten dira, render-ak deitzen direnak. Planoa



Adrian Cerezo Sanmartín arkitektoa, Vianako gazteluaren berregite birtuala egin du.

# "Helburua izan zenaren ahalik eta fidelena egitea da"

**ADRIAN CEREZO SANMARTÍN** ARKITEKTOA

Iturmendiarrak historia eta arkeologia batu ditu, eta Vianako gazteluaren berregite birtuala egin du

ikusi ez ezik, eraikina bere tokian kokatuta ikusteko aukera ematen dizu. Horrelakoak eskatzen zizuten, baina unibertsitatean ez zuten irakasgaririk eskaintzen nola eginen ziren azaltzeko. Zure

kontura egin behar zenuen. Orduan, ni bigarren mailan hasi nintzen nire kabuz ikasten eta erabiltzen, eta laugarren mailan lagunak laguntzen hasi nintzen. Nire proiektuak egin ondoren,

ikaskideen etxetara joaten nintzen eta irudiak egiten laguntzen nien. Lagun batek esan zidan jendea-ri gustatzen zitzaizela, oso dotorea-ri gustatzen zitzaizkiola, eta ea zergatik ez nituen kobratzen. Azke-

nean, lan bat zen. Horrela, lagunei bakarrik egin beharrean, beste ikaskideei egiten nitzkien ere. Momentu horretan prezio barregarri bat jarri nuen, klasekoei egiten nielako, eta gauzak ateratzen joan ziren. Hamaika edo hamabi pertsoneri egin nien lehenengo urte horretan. Urteak pasatzen joan ziren eta horretan espezializatu nintzen. Lanen kalitatea igotzen joan nintzen, eta egiteko zailtasuna igotzen zenez ere, pixkatxo bat gehiago kobratu behar nuen. Atera nintzenerako 60 bat proiektu egin nituen. Ez zen guztiz profesionala, estudio batean egingo lukeena, baina ongi zeuden.

**Zer programa erabiltzen zenuen? Nola ikasi zenuen?**

Sketcher programarekin hasi nintzen. Oso programa sinplea zen; gauza perpendikularrak baina ezin ziren egin. Hortik ateratzen bazinen gauza konplikatuak zen. Baina programan sartzen ziren pluggin bidez, aukerak handitzen ziren. Gaur egun arkitekturan egiten diren eraikinendako ongi zegoen, oso perpendikularrak direlako. Horren barruan sartzen zen beste programa batekin testurak, argiak eta abar sartzen nituen, eta gero irudi programa batekin hobekuntzak egiten nituen. Post-prozesu bat dago, oso luzea izan daitekeena. Gehien bat kanpoan diren irudiekin. Hori da lan metodo oinarrikoena. Baina geroz eta gehiago ikasten joan nintzen. Ondarean eta teknologia berrietan espezializatutako online plataforma batean ikastaroak egiten hasi nintzen: 3D inpresioa, programa konplexuagoak denetarik egiten uzten dutenak, fotometriaren bitartezko eskaneoa, irudi errealistagoak egiteko...

**Ondare birtualean espezializatzea erabaki zenuen?**

Hortik bururatu zitzaizun, beste lagun bati eta bioi, dagoeneko proiektuan ez dagoela bere enpresa bideojokoetan espezializatuta dagoelako eta lan karga hori zegoenez proiektutik ateratzea erabaki zuen, 360 graduko bistak lortzeko aukera genuenez, toki



**EGOKI**  
Ventanas PVC Leihoak  
www.ventanasegoki.com

**KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA**  
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



batean gainjarri zitekeela eta ondarearen berregitea egin genezakeela. Orduan, berreraikuntza horiek oso ongi ikertu behar dira ahalik eta historikoki fideleak izateko eta oso ongi kokatu behar dira publiko orokorri iristeko. Plataforma interesgarria izan daiteke, askotan arkeologia indusketa batera joaten zarenean ez dagoelako nahiko informazioa. Agian informazio panel batzuk daude denborarekin izorratu direnak, edo, besterik gabe, ez dago ezer. Bisita gidatuak kontratu behar dituzu zerbaitez ikasteko, eta, hala ere, esaten dizute hor dagoena erromatarren etxe bat dela. Hortik pasatzen zara eta gutxi gorabehera eraikinaren planta ikusten duzu, baina ezin duzu irudikatu nolakoa zen, zer espazio zeuden, kanpora ematen zuen, zer aurkitu zuten bertan... Pixka bat horri erantzuna ematean datza. Oso modu azkarrean, QR baten bidez, puntu jakin batetik tokia nolakoa zen ikusi ahal izatea.

#### **Nolakoa da prozesua?**

Normalean udaletxeekin lan egiten dut. Udalak nirekin harremanetan jartzen dira edo beste batzuetan gu joaten gara. Badira toki batzuk interesa erakutsi dutena Vianakoa ikusi ondoren. Beste batzuetan, lehenengo kontaktua egin dugu, bileraren bat egin dugu, eta ondoren toki batean errekreazioa egin nahi dutela esateko deitzen digute, baina aurrekontua mugatua

dela, eta denborarekin gauza gehiago egingo ditugula.

#### **Momentuz, Vianako gazteluaren berregitea egin duzu. Nola sortu zen proiektu hau?**

2019an Somosierrako gaztelu defentsiben inguruko erakusketak bat egin zen, hiriaren 800 urteurren ospakizunengatik. Viana 1219an sortu zuen Antxo VII. Azkarra erregeak, eta erakusketak horretarako 3D diseinu bat eskatu zidaten, oso oinarritzkoa, gaztelua bere azkeneko etapan nolakoa zen erakusteko. Baziren 1950ko plano batzuk, garaiko alkate batek egindakoak, militarra izandakoak, eta berak jaso zituen momentuan geratzen ziren aztarna gutxiak. Gaur egun, praktikoki ez da ezer gelditzen. Dorrearen oinarria, kontrafuerter txiki bat etxe batzuetan sartuta eta XVII. mendeko berreraikuntzaren horma bat gelditzen dira, besterik ez. Beste dokumentazioetatik tiratu behar izan dugu, eta zati batzuk interpretagarriak izan dira, datu zehatzik ez genituelako.

#### **Beraz, dokumentazio lana eta historia ezagutzea oso garrantzitsua da.**

Zati honetaz Iñaki Sagredo arduratu da. Duela gutxira arte horrelako proiektuen arduraduna zen. Bera dokumentazio horretaz arduratzen zen. Nafarroako gazteluetan aditua da, eta dokumentazioa bazeukan. Ez asko, egia esan. Badira historialariak egindako zenbait artikulu

gaztelua nolakoa zen azaltzen dutenak. Dokumentu horiekin XIII. eta XVII. mendeetako interpretazio bat egin genuen. Gazteluaren azkenengo etaparen ziurtasun gehiago dago, informazio gehiago zegoelako. Baina aurrekoekin arazo bat zegoen: Erregearen dorrea bezala ezagutzen dena, gaur egungo herria begiratzen badugu, defentsa dorre baterako arraroa zen toki batean gelditzen delako. Orduan, erliebe mapa begiratu genituen eta Vianako hirigintza begiratu genuen, eta ondorioztatu genuen sortzez herria askoz txikiagoa zela, eta Logroñora begira dorre hau zegoela, beranduago gazteluaren parte izango zen. Beste aldean San Pedroko eliza dago eta elizaren dorrea oso handia da. Vianako herria planoan ikusita laukizuzen bat da, eta babes-tuagoa egoteko harresi bat eraiki zuten gazteluaren aurrean. Orduan, hiri hori sortu zen. Eraso asko jasan zituen, eta zati bat behera joan zen eta harresien inguruan gehiago eraiki zuten. Batzuetan erdi aroko gazteluak irudikatzen ditugunean lau dorreekin eta babes harresi batekin, ez da guztiz egia. Gainak baliatzen zituzten herriak eta gazteluak egiteko. Erasoekin herria suntsitu zuten hori zabalduz joan zen, dorre hori atzean geldituz. Interpretatu duguna da XIII. mendean dorrea iskin batean zegoela eta inguruan herria sortu zela.

Zati hori ez dugu oso argi, ez dagoelako dokumentaziorik. Kontrastatzeko georradarra erabiltzea eskatu genuen, baina esan ziguten hormigoiarekin oso zaila zela zerbait ikustea. Beraz, horrela gelditu da. Etorkizunean plazan obrak egiten badira eta harresiaren arrastoren bat topatzen badute, eguneratuko dugu. **Non ikus daiteke berreirakuntza hori?**

Hori beste gai garrantzitsu bat izan zen. Jendearengana modu errazenean iristeko begiratzen egon ginen. Izan ere, badira toki asko aplikazioak deskargatzeko eskatzen dutenak, eta orduan tokiaren konexioaren arabera eta telefonoaren edukieraren arabera, jaisteko arazoak sor ditzaketanak. Jendea tokian bertan deskargatzen saiatzen da, minutu batzuk bertan egoten da, eta azkenean deskargatu gabe joaten da. Esaterako, Tarragonako bidai batean horrelako aplikazio bat zuen toki batean egon nintzen eta deskargatzen zituen datu kopurua izugarritzkoa zen. Aplikazioa deskargatzeagatik agian 400 mega ziren, eta informazio bat deskargatzen zuen bakoitzean gehiago jaisten ziren. Guztira, bi giga inguru deskargatzen ziren. Telefono askok ezin dute edukiera hori hartzeko aukera. Hori ekidin nahi genuen eta aurkitu duguna web zerbitzari batean jartzea izan da. Jendeak QR bat irakurtzen du eta zuzenean nabigatzai-

lean webgune bat irekitzen da. Bertan dago programa guztia eta telefonotik zein ordenagailutik ikus daiteke.

#### **Interneta behar da.**

Hori da, bai. Dena den, Internetik gabe konektatzeko aukerak badaude ere. Proiektu hau herriaren erdigunean zenez ez dago kobertura arazo handirik eta horrela egin genuen. Baina beste proiektu batzuetarako beste aukera batzuk ikusten ari gara. Baina, esan bezala, honetan webgune batetik ikusten ari zara eta beraz ez duzu ezer deskargatu edo gordetu behar.

#### **Orduan, bertara joaten zara, QRa irakurtzen duzu, eta zer ikusten da?**

Bertatik ikustea hobe da, tokian bertan zaudelako, baina irekia da eta edozein tokitik ikus daiteke <https://www.oneira3d.org/Viana/> webgunearen bidez. Lehenengo portada batean sartzen zara eta azalpenak agertzen dira; plataformatik nola mugitu zaitzekean agertzen da. XIII., XVII. eta XXI. mendeetatik mugitzeko aukera dago. Vianaren kasuan bideoak egin ditugu ere. Bertan pertsonaia historiakoak agertzen dira, kroma batean grabatu genituen eta gero errekreazioetan sartu. Mapa batera iristen zara eta hiru puntuak agertzen dira. Berez plazan hasteko pentsatuta dago, eta bertan bukatzeko. Lehenengo gauza 360 graduko gaur egungo plaza ikusten da. Eskuin aldean nahi duzun garaia au-

**"ARKITEKTURA IKASKETETAN ESPERO EZ NUEN ALDE ARTISTIKO BAT BAZEGOEN"**

**"KLASEKO AURKEZPENETAN PLANOTIK HARATAGO JOATEKO HASI NINTZEN 3D DISEINUA EGITEN"**

**"ONDAREA EZAGUTZEKO PLATAFORMA INTERESAGARRIA IZAN ZITEKEELA PENTSATU GENUEN"**



Vianako gazteluaren berregite birtuala. UTZITAKOA

kera daiteke eta klikatzean aukeratutako garaiaren irudia agertzen da eta mugitzen joan zaitezke. Telefonoa mugituz edo behatzekin mugituz ikusi daiteke. Gauetz ikusteko aukera dago, eta garaira girotua egotea nahi izan dugu ere: musika eta soinua sortu dugu. XIII. mendera joaten bagara, lehen esan bezala, interpretagarria da. Beste tokitara mugitu gaitezke, harresien kanpoaldea izango zitekeena, eta bertatik nolakoa zen ikusi. Hiru garaiak ikus dezakegu konparatzeko, eta baita gaur egun zer gelditzen den ikusteko ere.

#### Ekoi zen handiko lan bat da.

Ni 3D modelatuaren eta aplikazioaren muntaiaren arduraduna izan naiz. Bideoak ere editatu ditut. Lau bideo dira eta ibilbidean zehar ikusteko pentsatuta daude. Hau da aplikaziotik atera behar zaren zati bakarra. Youtubera bideratzen zaitu, kalitatezko bideoak jartzeko aukera bakarra zelako. Plataforman bertan bideoak sartzea pentsatu genuen, baina karga izugarri handia zen. Bideoetan berreraikuntza digitala agertzen dira eta pertsonaia batzuk. Hasieran plataformaren azalpenak ematen dituzte eta gero pertsonaia historiko garrantzitsuenak agertzen dira, gazteluarekin zerikusia izan zutenak. Antxo VII. Erregea, esaterako, XIII. mendean. Pertsonaia bakoitzak bere garaia azaltzen du. Gidoia publiko guztiendako pentsatuta dago. Beste aplikazio batzuetan agian historiari garrantzia gehiago eman diote eta zerbait espezializatuagoa da, baina kasu honetan dibulgatiboagoa egin nahi izan dugu. Ez dira bakarrik pertsonaia nagusiak ateratzen, baizik eta atzeko jendea eta abar ere agertzen da: jendea hitz egiten, lanean, soldaduak... **Bisita teatralizatu birtuala egiten dute.**

Bai. Bideo bakoitzak mapa batekin amaitzen da hurrengo puntura joateko eta, azkenean, hasierako puntura eramaten zaituzte. Beste puntu batean, beste garai batean, Cesar Borgia ateratzen da, esaterako. Cesar Borgia pertsonaiekin suntsituta gelditu nintzen. Alejandro VI. Aitas Santuaren semea zen, Borgia familia ospetsuetako bat. Vianan egon zen nafar ejerzitoren gidaria zelako. Historiaren une batean Leringo kondeak Larraga, Mendabia eta Viana hartu zituen, Gaztelaren konkis-



Vianako gazteluaren berregite birtuala. UTZITAKOA

taren aurretik, eta Cesar Borgia hartutako herriak berreskuratzeko eskatu zioten. Larraga siliatu zuen eta Viana herria berreskuratu zuen, baina ez gaztelua. Horrek esan nahi du gazteluak babes handia zuela. Orduan, gaztelua siliatu zuen. Baina Mendabiatik janariak sartu zituzten eta gau batean Cesar Borgia traidoreen bila joan zen eta eraso batean hil zuten. 31 urte zituen, nire adina, eta horregatik harri garria iruditu zitzaidan. Ejerzito baten gidari izatea eta hain modu tontoan erailteza. Orduan, bideoan bere istorioa kontatzen du, eta desagertzen da. Oso polita iruditu zitzaigun. Viana bakarrik gelditzen da istorioarekin jarraituz. Anek egin ditu gidoiak. Historialaria eta kazetaria da, oso lan ona egin du. Beste pertsonaia bat ateratzen da, 1950ko alkatea. Egia esan, plataforma nola egin pentsatzen hasi ginenean ez zela batere erraza pentsatu genuen, baina behin garatzea lortu genuenean, non egin zitekeen pentsatu genuen. Vianan zerbait oso berritzailea egin dugu, bereziki webgune bat delako.

#### Zer harrera izan du?

**"XIII. MENDEKO DOKUMENTAZIO GUTXI ZEGOEN ETA INTERPRETATU BEHAR IZAN DUGU"**



Vianako gazteluko arma patioaren berregite birtuala. UTZITAKOA

Abenduaren 1ean aurkeztu genuen eta lehenengo astean, abendu zubiarekin bat egiten zuela, bost egunetan 300 bat bisita izan zituzten bideoek eta webguneak pixka bat gehiago. Ikusten duguna da aplikaziora sartzen den jende guztiak ez dituela bideo guztiak ikusten. Ibilbidea egiten joaten bazara, gutxi gora behera ordu bateko iraupena du. Zonaldeari buelta eman, gelditzea, bideoak ikusi... Oraingoz ibilbidea txikia da, baina helburua herriko beste puntu batzuekin zabaltzea da. Gidoia eta bideoak moldatu, eta

beste puntu batzuekin handi daiteke.

#### Zenbat denbora behar da horrelako zerbait egiteko?

Vianako kasuan, eta gauza gehiago sartzeko aukera dago, gutxi gorabehera urte batean egin dugu. Bideoak izan dira, agian, konplexuena. Aurreko urteko martxoan

**"PLATAFORMAN HIRU GARAI DESBERDINETAN GAZTELUA NOLAKOA ZEN IKUS DAITEKE"**

edo apirillean hasi ginen hitz egiten, lehenengo proba Madrileko Fiturren aurkeztu genuen, maiatzean. Oso oinarrizkoa zen, garai bateko errekreazioarekin eta plataformarekin nondik norakoak azaltzen zituen. Uda osoan lanean jarraitu genuen, eta abenduaren 1ean aurkeztu genuen.

#### Proiektu berriak martxan dituzu?

Nafarroako beste bi herrirekin kontaktuan ari gara. Duela gutxi hasi gara, eta dokumentazio lanarekin hasi gara. Kasu batean dokumentazio asko dago, Vianaren kontrakoa. Vianako kasuan nik modelazioa eta proiektuaz arduratu naiz, baina hurrengoetarako lan karga guztia ez eramateko modelatzaile talde bat bilatu dugu, eta nik ere modelatuko dut. Horrela lan batean baino gehaigotan batera lan egin dezakegu.

#### Zein toki gustatuko litzaizuke birtualki berregitea?

Asko dira. Ezagutzen ditudan tokietatik politenarikoa iruditzen zaidana paisaia aldetik eta tokiagatik Irurritako gaztelua da. Ibarreko gehien gustatzen zaidan tokietako bat da. Baina horrelako zerbait jartzeko pixka bat zaila da, azkenean jendeari igorazi behar diozulako, eta ez da guztiz erraza. Baina lekuari diodan estimuagatik puntu polita izan zitekeen. Edo Irurtzungo Aixita gaztelua. Toki handienetarako joaten bagara, Numancia-ra joko nuen. Zimenduetan dago. Dena aterata dago eta ikus daiteke. Bertan erromatarren eraso guztia egin zitekeen, hiria berregin... Baina toki eta gaztelu asko daude.

#### Arkitektoa eta 3D diseinuak egiten dituzu. Baina historia ere asko ezagutu behar duzu, ezta?

Historia izugarri gustatzen zait. Prozesu guztia gainbegiratzen egon naiz, eta dokumentazio oso handia dagoen tokietan talde bat arduratuko da ere ikertzen eta interpretazioak egiten. Lekua nolakoa zen ahalik eta modu fidelenean ateratzea da helburua. Anekdotaren bat ere bilatuko ditugu, bideoetan jartzeko. Lan oso zorrotza da, eta jende gehiago inplikatuko dut. Arkitektura egin nuen, arkitektoa naiz, 3D diseinuak egiten ditut, baita erai-kinak diseinatzen ditut ere, eta aurten, gainera, UNEDen Historia graduan matrikulatu naiz. Zailtasun bezala, txikitatik gus-  
tatzen zait eta pixkanaka egiten joateko.



ASTEKOA

RAF ATXURI

## Iruñean Laba. Magma bor-bor

Iruñeko epizentroan, egongelan, hots, Gaztelu Plazan. Hantxe sortu da euskalgintza aberastu eta sormenez nahiz ekimenez jantzi nahi duen elkargunea. Laba du grazia eta hainbat gazte euskaltzale gartsuk abiarazi dute proiektua berriki, luzaz eragitekotan.

Globalizazioak hizkuntza gutxiagotuei beste kokka bat estutu die haien garabide eta arnaguneetan; hau honela ingelesak, txinerak, arabierak, errusierak... baita gaztelaniak eta frantsesak ere oinpean dauzkaten hizkuntza eta kultura "ttikiak" itokarrean edukitzeko tresna berriak dauzkate eskura egun.

Geureari dagokigunez, azken hamarkadetan Euskararen espazioak zabaltzen eta gehitzen ari ziren arren, hainbat alarma larri piztu dira, batik bat ahozko eguneroko erabileran.

Bada, Iruñeko neska-mutil zangar hauek, negar eta kexari muzin, eta xede berriak lantzeari eta eskaintzeari ekin diote. Aurreko hamarkadetan egosten ari zen euskalgintzaren magma hori batu, prestatu eta indar askatzaile eta eraginkorra bilakatu nahi dute. Ilusioz eta grinaz, dizdira begietan eta alaitasun kutsagarri aurkeztu dute euren egitasmoa, urteetan metatu energia horri erakusleho garbi eta txukuna eskaini nahi diotelarik hiriaren erdi-erdian, eta oholta, kafetegia, ideia mintegi

edota nahiak trukatzeko txokoa izateko jai da.

Magma horri itxura eta tankera ematekotan dira aurrerantzean, Iruñeari eta euskalgintzari proposamen oparo eta erakargarria plazaratuz. Euskara bazterretik atera eta erdigunerantz aldatuz.

Bisitatu dezagun, beraz, ezagutarazi eta gozatu haren sorkariez.

Euskaraz baikara.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapitulu-luka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

## HARA ZER DIEN

### Neska\* gazteok heteronormatibitateaz eta maitasun erromantikoz

#### ERRAFAILAK SAKANAN

Azken aldian, sare sozialetan harreman heteronormatiboetan askotan gertatzen den adin tartearen inguruko eztabaida piztu da. Adin tarte hori gizon helduen eta neska nerabeen artean gertatzen da gehienbat eta Sakana ez da patroio horretatik at geratzen. Horregatik, guk harreman sexu afektiboen adin desberdintasunari ikuspegi feministatik heldu nahi diogu.

Maitasun erromantikoa indarkeria matxistaren legitimazio esparru gisa aztertu behar da, heteronormatibitatea genero rolen naturalizazio esparru

gisa eta, bide batez, indarkeria matxisten egiturazko kausak eta gure aurkako indarkeriaren legitimazio egiturak indargabetu behar ditugu.

Harreman heterosexualetan adin desberdintasuna dagoenean, botere harreman gehiago dagoela pentsatzeko arrazoiak ditugu, neska\* gazteok baikara harreman heteronormatiboetan indarkeria gehien jasaten dugunok. Sistema heteropatriarkal kapitalista sostengatzeko beharrezkoak dira familia eredu nuklear, tradizional, heterosexual eta monogamoak, beraz, sistemarentzat maitasun

erromantikoa ikaragarritzko tresna eraginkorra da indarkeria hori sostengatzeko. Feminismotik, pertsona politikoa den heinean, harreman pertsonalak politizatu behar dira eta, beraz, maitasuna bera ere bai.

Hortaz, maitasuna eta bikote eredu normatiboak birdefinitu behar ditugu, balio sistemak eta gure desirak berreraiki eta "normala" zaiguna zalantzan jarri behar dugu. Feminismotik aukera sexu afektibo guztiak posible izan daitezkeen borrokatzen dugu, gure erabakiak, harremanak eta gorputzak askeak izan daitezkeen.

Autodefentsa feministaz heteroarauarekin apurtu! Maitasun erromantikoen aurrean, maitasuna kolektibizatu!



## OBJEKTIBOTIK



Itsasi Euskaltegia @ItsasiEuskaltegia · 16 h

Segundo batzuetan maskara erantzi, kalean, eta argazkia egin. Gaur Etxarri Aranazko taldeak @gaizkaranguren en bisita izan du. "Itxi liburuak" saioaz aritu dira. Zeinen gustural!



**guaixe**  
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

#### GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika  
info@gkomunikazioa.eus  
948 564 275 (3 luzapena)  
619 821 436  
Ainhua Etxeberria Pikabea  
gk@gkomunikazioa.eus  
618 640 056

#### Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez  
admin@guaixe.eus

#### Zuzentzailea:

Patxi Flores Lazkoz

#### Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

#### LAGUNTZAILEAK

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**



#### Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

#### Erredakzioa:

Maider Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
kultura@guaixe.eus

#### Maketatzailea:

Irene Trece Obeso  
maketazioa@guaixe.eus

#### Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

#### Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

#### ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
618 882 675



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua

# Amiantoak eragindako alarguntza pentsioa

Sunsundeguin lan egin zuen gizonezko gipuzkoar bati erretiroa hartu ondoren Osakidetza biriketako mesotelioma diagnostikatu zion. Gaitz horren ondorioz, Altsasuko enpresako langile ohia 2021eko ilbeltzaren 1ean hil zen

## ALTSASU

Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak Sunsundeguiko langile erretiratu baten alargunaren erreklamazioa onartu du, eta, ondorioz, amiantoak sortutako gaixotasun profesionalaren ondoriozko alarguntza pentsioa onartu diote. Gizarte Segurantzak onartzen du langilea amiantoaren eraginpean egoteagatik hil zenez, lanbide gaixotasunaren ondoriozko alarguntza pentsioa jaso behar duela alargunak.

ELAko bozeramaileek zehaztu dutenez, hildako langilea Sunsundeguiko txapa atalaren arduraduna izan zen 1991ko ilbeltzetik 2000ko apirilera. Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak 2021ko apirilean egindako klinika eta lan txostenean jasotzen denez, Sunsundeguiaren Altsasuko instalazioetan "barrutik amiantoz estalita zeuden tren bagoiak eraberritzen ziren", eta ondorioztatzen du "ebidentzia



Sunsundeguiaren egoitza. ARTXIBOA

zientifikoaren ikuspegitik, esposizio irizpidea dutela bai latentzia denboragatik (30 urte inguru), bai eta pairatzen duen patologiagatik (pleurako mesotelioma)". Sindikatuko ordezkariak azaldu dutenez, "orain

hildakoaren alargunak zein senideek aukerak dituzte segurtasun neurri gabeziengatik prestazioen erreklama eskatzeko, edota erantzukizun zibilaren arloko ekintza abiatzeko".

ELA sindikatuko kideen iritziz, "amiantoak ondorio dramatikoak dituen laneko pandemia da, enpresaburuen eta administrazioen mespretxuaren ondorio". Horregatik, sindikatuko ordezkariak erakunde publikoei eskatu diete "langile klasearen osasunerako eskubidea eta eragindako kalteen ordaina modu eraginkorrean bermatzeko beharrezko baliabideak esle" ditzatela, "eta lantokietatik minbizia eragiten duten produktuak ezabatzeko konpromisoa berresten du". Sindikatuko ordezkariak, azkenik, dei egin diete "amiantoak kaltetutako langile eta senideei euren esku-bideak erreklama ditzaten, gaixotasunak amiantoaren eraginpean egon eta urte askotara agertzen baitira".



Eguna bazkariarekin borobildu zuten. 18 kide izan ziren Aritzaga elkartearen.

## Sanantondar iturmendiarrek ardurak berritu dituzte

Urte bateko etenaren ondoren, igandean elkartu zen San Anton kofradia

### ITURMENDI

Hildako kofradeen omenezko elizkizunean elkartu ziren Iturmendiko sanantondarrak igandean. Ondoren, apaiz etxean batzarra egin zuten. Alejandro Gabirondo priorea jakinarazi zuenez, 2020an ez baina 2021ean bi anaia hil ziren: Pedro Garcia Bolinaga eta Segundo Moreno Irisarri. Bestalde, igandeko ekitaldian kofradiak kide berri bat onartu zuen: Ibai Eskisabel Iribarren. Ohi denez, kide berriak kofradiaren sorrerako (1690) agiriaren kopia bat jaso zuen.

Gaur egun Iturmendiko San Anton kofradiak 24 kide ditu. Pandemiagatik bi urtez ardura buruzagi berek izan dute: Alejandro Gabirondo priorea izan da eta Francisco Sanchezek kofradiako bandera zaintzearen ardura zuen. Igandeko bileran erabaki zen Sanchez kofradiako priore izendatzea eta bandera zaintzeko ardura Javier Jungituren esku uztea. San Anton kofradiak mila euro inguru ditu. Kideren bat hiltzen denean, haren aldeko meza ordaintzen du. Bestela, dirua pilatzen duenean, ongintzarako ematen du.

## Sarabe, eta bertako altxorak, ezagutzeko aukera

Igandean, 09:30ean, Urdiaingo igerilekutik abiatuko da Mintzakidek antolatutako txangoa. Hiru ordu iraunen du.

### URDIAIN

Sakandarrek ibarra hobeki ezagutzeko ahaleginarekin segitzen du Mintzakide programak. Lastailean Hiriberri Arakil eta Egia-urretako eta azaroan Etxarri Aranazko basoak ezagutzeko aukera eman eta gero, igandean Urdiaingo igerilekuen ondoan Sarabe ibartxoan ezagutzeko aukera izanen dute mintzakideak eta euskara praktikatu nahi duten guztiak. Urdiaingo igerilekutik abiatuko den ibilaldia egiten dutenek Iruritako gaztelua eta Aitziber ermita ezagutzeko



Fosilez ikasi zuten aurreko batean.

aukera izanen dute. Baita San Migel ermitaren aztarnak ere.

Mintzakide programa ez da halako irteerak antolatzea mugatzen. Bere egiteko nagusia euskara praktikatzeko espazio txiki eta erosoak sortzea da. Hau da, ikasten ari delako, hitz egiteko ohitura galdu edo dena delako arrazoiren batengatik euskara hitz egiteko erraztasuna ez duten bizpahiru pertsona elkartzen ditu. Haiekin hizkuntza dakien beste pertsona bat izaten da. Guztiak astean behin elkartzen dira, ordu batez. Eta nahi duten jarduerak egiten dute: kafea hartu, poteoan ibili, zinemara joan, ibili, mendira joan... Hala-ko taldetxo batean euskara praktikatu nahi dutenek 600 482 024 telefono zenbakira hots egin edo hara Whatsapp mezua bidali dezakete. Dohainik da.

## Iturmendiko elizako argiteria berrituta eta organoa konponduta

Iturmendiko elizan duela lauzpabost urte egin zuten azken lan handia. Orduan eliz dorrean ateratzen ziren landareak kendu eta harrien arteko juntura berdindu zuten. Parrokiak 2021ean beste bi inbertsio handi egin zituen. Alde batetik, parrokiak elizako organo elektrikoaren baffleak konpondu zituen eta, horren truke, 1.790,8 euro ordaindu zituen. Organo jotzailerik ez dago Iturmendin gaur egun eta musika tresna festa egunetan jotzen da soilik. Bestalde, argiteriako bonbilla guztiak kenduta LED argiak jarri zituzten. Lan horien ondorioz, erretaula barrokoa eta elizako margoak hobeki argiztatuta daude.

## Trafikoak Sakanan bi hildako utzi zituen joan den urtean

Euskal Herrian 85 pertsona hil ziren trafiko ezbeharren ondorioz 2021ean, hau da, lau egunetik behin pertsona bat hil zen. Aurreko urtearekin alderatuta 14 hildako gehiago eragin zituen trafikoak, %19,71 gehiago. 85 hildako horietatik 29 nafarrak ziren, %34,11. Eta, zoritxarrez, horien artean gizonezko eta emakumezko sakandar bana daude. Biak ere autoak harrapatutako oinezkoak ziren. Atzera begirata, joan den urtean trafikoagatik sakandar bat hil zen. 2019an, berriz, ez zen trafiko ezbeharrek eragindako hildakorik izan. Baina 2018an eta 2017an, ordea, hiruna sakandar hil ziren errepideetan izandako istripuetan.

# Hiru proiektuendako Mecna izendapena

Irurtzunen euskara eta kultura sustatzeko, Aralarko ostatuko harrera, denda eta komunak egokitzeko eta Guaixe fundazioarendako izan dira izendapenak. Egitasmo horiei dirua ematen dietenek zerga beherapenak izanen dituzte

## SAKANA

26 proiektuk, jarduerak eta programak jaso dute Nafarroako Gobernuaren kultur mezenasgoaren Mecna izendapena. Horien artean Sakanako hiru egitasmo daude. Hamasei gizarte intereseko proiektu eta kultur jarduerak dira. Horien artean dago Irurtzungo Aizpea euskara taldeak eta Pikuberri elkarteak aurten herrian euskara eta kultura sustatzeko egitasmoa.

Aralarko santutegiak ere Mecna izendapena eskuratu du. Santutegiko arduradunek 2030 urtera arteko estrategia plana egina dute, hiru fase dituena. Aurrenekoan Lakuntzetxe berritzeko lanak daude. Eraikinaren hiru solairutan interpretazio gunea egin nahi dute. Bigarren fasean ostatuko harrera, denda eta komunak berritu nahi dituzte. Eta, hain zuzen ere, lan horiei bultzada emateko balioa du Mecna izendapenak. Plana hirugarren fasearekin osatuko litzateke, ostatua zahar berritzearekin. Bisitariari zerbitzu hobea emateko irabazi asmorik gabeko turismo iraunkorreko enpresa soziala sortuko dute. Gainera, San Migeli debozioa dioten tokiek osatutako sarea osatu eta Europako kultur ibilbide izendapena lortzeko lanean ari dira.



Aralarko santutegiak jende ugari erakartzen du. Ezkerrean ostatuko sarrera.

Azkenik, hamar kultura proiektu eta jardueren programak jaso dute Mecna izendapena. Eta gizarte intereseko kalifikazioa merezi dutenen artean dago Guaixe fundazioa, Sakanan euskarazko hedabideak sustatzen dituena.

### Nola laguntzen da?

Kultur Mezenasgoa arautzen duen Foru Legean sartu eta mezena ekarpenak jaso ahal izanen dituzte, pizgarri fiskalekin. Gobernuaren aitortzen horri esker, egindako ekarpenek zerga piz-

garriak izanen dituzte, bai pertsona fisikoendako, bai enprezendako. Partikularren kasuan, errenta aitortzenaren kuotaren %80ko kenkaria ahalbidetzen du lehen 150 euroen kasuan, eta %40koa gainerakoetan. Enpresen kasuan, emandako diru kopuruak Sozietateen gaineko Zergaren zerga oinarria murrizten du, gastu kengarritzat hartzen baita, eta, gainera, kuota likidoaren %30eko kenkaria lortzen da lehenengo 300 euroetan, eta %20koa hortik gorako hurrengo kantitateetan.



Txekorrak agotza jaten. ARTXIBOA

## Mendialdeko lehen sektorearen balioa aitortzeko kanpaina

Tokiko produktuen erosketa bultzatu eta sektoreko langileak prestakuntzarekin ahaldundu nahi da

## SAKANA

COVID-19 gaitzak "eragindako garai zailetan agerian geratu da lehen sektoreak eguneroko bizitzan duen garrantzia, elikagai osasungarri, nutritibo eta aberatsez hornitzen baikaituzte etengabe. Hala ere, batzuetan, gure errutinarako hain beharrezkoa den lehen sektoreko lana ez da behar bezala aitortzen". Hala uste dute Cederna Garalur elkarteak. Horregatik, Etxean, etxekoa kanpaina jarri du martxan, Nafarroako Mendialdean lehen sektorean diharduten langileei gizartearen aurrean balioa emateko.

Garalurrek kanpaina horren bidez "tokian tokiko produktuak erostea kontsumo mota logiko eta naturalena" dela defendatzen du elkarteak, "gure erkidegoan inbertitzeko eta lehen sektoreko hainbat lerrok egiten duten lan bikaina eskertzeko aukera ema-

ten digulako". Nafarroako Mendialdeko eskualdeetatik datozen produktuak tokiko establezimenduetan identifikatzen laguntzeko etiketa bat diseinatu du Garalurrek, horrela horien kontsumoa sustatzeko.

Elkarteak Lehen Sektorearen Balorizazioa proiektua du esku artean, eta aipatutakoa haren barruan aurreikusitako ekintzetako bat da. Ekimenaren helburua da "lehen sektoreak landa inguruneetan enplegua sortzeko, gure herrietan merkataritza sustatzeko eta elikadura aberats, osasuntsu eta arduratsu baten alde egiten duen lana aitortzea".

Horretaz aparte, proiektuak lehen sektorean lan egiten duten pertsonak eta taldeak kontzientziatu nahi ditu. Horretarako, hainbat saio antolatu ditu, parte hartzaileek beren produktuei eta jarduerari, balio eta eraginei buruz gogoeta egiteko.



## ZER EGIN HAURREK EUSKARAZ (GEHIAGO) IRAKUR DEZATEN?

**NORK ESKAINIKO DU?** Galtzagorri elkarteko Intza Alkainek.

**NORENDAKO DA?** Gurasoendako, irakasleendako, irakasleendako, hezitzaileendako, zaintzaileendako eta bitartekariendako. Haur eta Gazte Literatura gustuko duen edonorendako.

**NOIZ IZANGO DA?** Otsailaren 15ean, asteartearrekin, 17:00etatik 19:00etara.

**NON IZANGO DA?** Urdiaingo auzoan.

**NON EMAN BEHAR DA IZENA?** Lantegian parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute alde aurretik euskara1@sakana-mank.eus helbidean.

**ZEIN DA HELBURUA?** Euskarazko irakurzaletasuna sustatzea haur eta gazteen artean.

**HITZALDI LANTEGIA**








Nafarroako Torturatuen Sarearen aurkezpena. WWW.EKINKLIK.ORG

## Tortura eta tratu txarrak jasan dituztenendako gonbidapena

Nafarroako Torturatuen Sarea Berriozarko musika eskolan otsailaren 12an, 10:00etan, aurkeztuko da

### SAKANA

Torturatuen Sareak "Nafarroan torturatu eta tratu txarrak jasan dituzten pertsonen bozgorailu" izan nahi du, eta "egia, justizia, erreparazioa eta ez errepikatze-ko bermeak nahi ditugu". Torturatuen sareko kideen iritziz, "torturaren inpunitatearekin amaitzeko garaia da. Hamarkada luzeetako sufrimendua, sufrimendu ukatua, ukatua eta luzaroan jazarria ikertzeko garaia da". Elkarte Berriozarko musika eskolan otsailaren 12an aurkeztuko dute, eta tratu txarrak eta torturak jasan dituztenak

hara joateko deitu dituzte. Bi zati izanen ditu ekitaldiak. Lehena, 10:00etan, pribatua izanen da. "Sareak etorkizunerako planteatzen dituen erronkak eta dinamikak haiekin partekatuko ditugu" azaldu dute. Bigarren zatia, Nafarroako gizarteari zuzendutako ekitaldi publikoa izanen da. Sarea lekukotzak jasotzeko formularioak banatzen aritu da Etxarri Aranatz eta Altsasun. Azken horretan otsailaren 10ean eta 17an, 19:30etik 21:00era.

# Gazte Asanblada agenda betetzen hasi da

Bere 40. urteurrena eta gaztetxearen 15. urteurrena ospatzeko apirila arteko agenda aurkeztu du. Aurreikusitakoan artean daude kontzertuak, hitzaldiak, mendi irteerak eta beste. Garagarrilaren aurreneko astean egitarau berezi izanen da

## Egutegia

- **Otsailak 4, ostirala**  
Bakarlarriak: Joxe Aldasoro eta Mikel Bermejo.
- **Otsailak 10, osteguna**  
Gizakunde.
- **Otsailak 17, osteguna**  
Andrekunde.
- **Otsailak 19, larunbata**  
Kontzertuak: Nafarroa 1512 eta Alerta Gorria.
- **Otsailak 24, osteguna**  
Garikunde.
- **Otsailak 26, larunbata**  
Zalduniyote.
- **Martxoak 1, asteartea**  
Astearteyote.
- **Martxoak 8, asteartea**  
Bilkura: Emakumeen Eguna.
- **Martxoak 11, ostirala**  
JL Erdozia Mauleon: Arañazko historia.
- **Martxoak 18, ostirala**  
Dokumentala.
- **Martxoak 25, ostirala**  
Kontzertuak: The Lio, Sofokaos eta Dinamita.
- **Apirilak 1, ostirala**  
Ostiela gaztetxien.
- **Apirilak 2, larunbata**  
22. Korrikako kilometroa.
- **Apirilak 9, larunbata**  
Mendi martxa: Larrun.



Egitaraua aurkeztu ondoren, musikari etxarriarrek emanaldia eskaini zuten. EGA

### ETXARRI ARANATZ

Makina bat etxarriar elkartu ziren gaztetxean ostiral gauean, Etxarri Aranazko Gazte Asanbladaren (EGA) urteurrenen ospakizunen aurkezpenean. Izan ere, gazte erakundeak aurtun 40 urte betetzen ditu eta gaztetxeak 15. EGako kideen asmoa da urte guztian barna ekitaldiak antolatzea, COVID-19 gaitzak, hala ere, guztia baldintzatu duenez, momentuz, apirila bitarteko egitaraua aurkeztu zuten. Hori bai, gaztetxearen urteurrenarekin bat egiten duen egunean, gara-

garrilaren 7an, eta aurreko egunetan (3, 4, 5 eta 7an) jarduerak izanen direla jakinarazi zuten gazte erakundetik.

EGA 1982an sortu zen, baina aurreko urtean dagoeneko Inutilaren eguna antolatu zen. 1996ko martxoaren 9an Zirkulua okupatu zuten eta 1999an teitlatua erori zen. Horrek EGaren beharada ekarri zuen. Harik eta gazte batzuk erakunde biziberritu eta kultur etxe azpiko udal biltegia zena gaztetxea bihurtu arte; 2007ko garagarrilaren 7an mustu zen.

## Elkartasunezko arropa eta bestelakoek bilketa martxan

Apirilaren 8ra arteko ostiraletan, 10:00etatik 13:00etara, arropak eta bestelakoak jasoko dituzte

### ALTSASU

Etxean soberan dituzu erabilgarririk dauden arropak, jostailuak, bitxiak, oinetakoak, maindireak edo bestelakoak? Hala bada, haiei bigarren bizitza bat emateko aukera duzu. Izan ere, Sakanako

Mankomunitateko Anitzartean Zerbitzuak eta Sakana Harrera Harana elkarteak elkartasunezko bilketa antolatu du. Erkuden eta Altzania kaleen bidegurutzean dagoen eraikina (lehenengo SD Altsasu taberna) ostiralero za-

balduko dute hurrengo hamar ostiraletan, gaurtik hasita. 10:00etatik 13:00etara eraman daitezke soberan eta egoera onean dauden arropak eta bestelakoak. Jasotako guztiari bigarren bizitza emateko, antolatzaileek apirilaren 10ean elkartasun azoka egingen dute. Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak eta Sakana Harrera Harana elkarteak elkartasun bilketa antolatzeke Altsasuko Udalaren laguntza izan dute.

**Lan erreforma honi EZ**

LAN HARREMANEN ESPARRU PROPIOAREN ALDE

Urtarrilak 30

**MANIFESTAZIOA**  
URTARRILAK 30, 12:00etan  
Iruñea. Autobus geltoki zaharra

▶ ELKARRETARATZEAK LANTOKIETAN  
Lan erreformaren bozketan bezperan

ELA • LAB • STEILAS • ESK • ETXALDE • HIRU



# Udalak kanpinean inbertsioak egin ditu

Guztira 75.330 euro bideratu ditu aterpea berritzeko, eguzki plakak jartzeko eta ibilgailu elektrikoendako karga gunea jartzeko. Bestetik, galdutako animaliak behar bezala zaintzeko hitzarmena sinatu du herriko albaiariarekin

ETXARRI ARANATZ

Danbolintxulon dagoen kanpina udalarena da eta bere jabetza horretan hiru inbertsio egin ditu Etxarri Aranazko Udalak. Alde batetik, aterpea zaharkituta zegoela iritzita, hango sukaldia eta berogailu sistema osoa berritu da. Horretaz aparte, erakina bera margotu du. Guztiak 18.820 euroko aurrekontua izan du. Bestetik, ibilgailu elektrikoendako karga puntua jarri du. Han haien bateriak bete ditzakete autoek, patinetek, bizikletek eta bestelako ibilgailuek. Hura jartzeko 13.800 euro pagatu ditu udalak. Azkenik, aldagelak, taberna eta jatetxea hartzen dituen eraikinean eguzki plakak jarri ditu udalak. Eraikinaren autokontsumorako izanen da han sortzen dena. Aurreikuspenen arabera, plakak jarrita urtero 5.000 eta 6.000 euro artean aurreztuko da. Horretara 42.710 euro bideratu ditu. Lan horiek guztiak diruzaintzako soberakinarekin egin ditu udalak.

Bestetik, 2020ko abenduan mustu zen autokarabanendako aparkalekua, Uhartte Arakilgoaren ondoren Sakanako bigarrena izan zen. Hasieran aparkalekuko zoru guztia hareazkoa zen. Baina ibilgailuen sarrera-irteerak adierazteko, aparkalekuaren erdian porlanezko kale bat egin du udalak 10.500 euroekin.

Bestetik, udalak 17.520 euro bideratu ditu eskolan honako lanak egiteko: berogailua kudeatzeko zentralita berria jarri, Ikasnova gelako lehen fasea, ur beroaren biltegia berritu eta sarrerako atea berritu da. Aritzalko hotelaren ondoan ur ihesa zegoen eta udalak erabaki zuen hara ura beste toki batetik eramatea, eta, bide batez, ihesa zuen hoditeria betiko ixtea eta erabileratik kanpo uztea. Basoko hobekuntza proiektuetara 6.500 euro bideratu ditu, zehazki Aunztetxeko bidea konpontzeko.



Kanpineko eraikin nagusian jarritako eguzki plaketako batzuk.

## Galdutako animaliak

Hiltegi zaharrean udalak 3.500 euro balio duten lanak egin ditu udalak, eta eraikinean jasotako animaliak gordetzeko tokia prestatu da. Beraz, animalien jabea agertu edo animalien babeserako elkarteak eraman arte txakurrak edo bestelako animaliak han gordeko ditu. Etxarri Aranazko Udalak, gainera, Maria Goikoetxea Otxoa de Erize albaiariarekin hitzarmena sinatu du. Bera arduratuko da jasotako animalien lehen arreta eskaintzeaz eta udalak ordaindu egiten du. Hitzarmen bidez arautu dute guztia.

Goikoetxeak azaldu duenez, "jendeak galdutako txakur edo katuren bat opatzen duenean, klinikara ekartzen dit. Halakoetan, lehenengo eta behin txipik ba ote duten begiratzten dut. Txipa badute, normalean ihes egindako animaliak dira. Txipeko datuen bidez nagusiarekin harremanetan jarri eta berak jasotzen du". Albaitari etxarriarrak esan duenez, normalean galdutako txakurrak dira jendeak opatzen dituenak, katuren bat ere bai. "Urtean hamabost bat izaten dira, eta erdiek txipa dute. Gainontzekoak bazterren batean utzitako animaliak dira". Txipik gabeko txakur bat jasotzen duenean Goikoetxeak animalia aztertu egiten du ongi ote dagoen jakiteko. Ondoren, parasitoak hiltzen dizkio eta udal egoitzara eramaten du. "Han gaua pasatzen dute edo elkartean egoitza tokia egon arte izaten dituzte. Bitartean, sare sozialen bidez, txakurraren berri ematen dut, ea horrela jaberaren bat opatzen diodan. Eta elkarteari karga gutxitzen diodan".

Sarraila elektronikoaren sistema da Salto eta hura udal eraikin sarrera guztietan ezarri da, sarrailak aldatuz. Giltzak eta fitxe-

roa ezartzeko 6.500 euro ordaindu ditu udalak. Sistema horren bidez langileek lan orduak ere fitxatzen dituzte.



Erreka kalearen azpitik erreka bat pasatzen da. ARTXIBOA

## Udala Erreka kalearen konponketagatik ate joka ari da

Urbanizatzeko lanak egin nahi ditu, baina inon ez da jaso lurpetik doan erreka behar bezala kanalizatzea

UHARTE ARAKIL

Uhartte Arakilgo Udalaren aspaldiko asmoa da herriko sareak eta kaleen zoladura berritzea. Ibai gaineko zubia eta autobus geltokia lotzen ditu Erreka kaleak, Uhartte Arakilgo kale nagusietako bat. Hura konpondu nahi zuen udalak eta, horretarako, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza deialdietara aurkeztu izan da. Baita onartua izan ere, eta Toki Inbertsioen Planaren barruan jasoa ere. Lanek 860.000 euro inguruko aurrekontua lukete, eta foru administrazioak 609.859,51 euroko dirulaguntza aurreikusia du, 225.271,29 euro ur hornidura, saneamendu eta euri uren sareak berritzeko eta 384.588,22 euro zoladurarako.

Kaleazpitik erreka bat pasatzen da, horregatik, deitzen da hala kalea, Erreka. Haren urak behar bezala bideratu edo kanalizatu behar dira, lurpeko sareak, kalearen zoladura edo etxeen zimenduei kalterik ez egiteko. Eta lan horiek egiteko dirulaguntzarik ez du jaso Uhartte Arakilgo Udalak. Errekaren urak bideratzeko lanek asko garestitzen dute proiektua, bikoiztu arte, 1,6 milioi euro. Udalak aurre egin ezin dion inbertsioa. Horregatik, Nafarroako Gobernuaren hainbat departamentutako ordezkariak bilerak izaten ari dira udal ordezkariak. Azkenekoa asteartean izan zuten Ingurumen Departamentuarekin. Jasoko duten erantzunaren zain, lanak egiteko egon litezkeen bideak aztertzen segitzen dute udalean.

Argiteria

Uhartte Arakilgo Udalak duela urte eta erdi eman zituen Geltoki eta Zerradoa inguruko argiteria publikoa berritzeko lanak. Baina beste hainbat arlotan gertatzen ari den moduan, merkatuan materiala ez dago eskuragarri eta lanak hartu zituen enpresa hura eskuratzeko arazoak izaten ari da. Horregatik, lanak egiteko epeak luzatzea eskatu du. Egoera ikusita udalak onartu egin zuen enpresaren eskaera. Hala ere, LED argiak jartzeko lanak aurki hasiko direla gaztigatu dute udaletik. Energia eraginkortasuna lortzeko eta argindar kontsumoa murrizteko Uhartte Arakilgo Udalaren plangintzaren barruan daude lan horiek. Aurretik Itsesin eta Bidezarren zeuden bonbillak kendu eta LED argiak jarri zituen.

Bestalde, abenduaz geroztik erabilgarri dago Ganbeleta iturburuko ur hoditeria berria. Aurretik mikrozeimentuzko hodiak zeuden eta 60 urte zeramaten jarrita. Baina hautsi egiten ziren uraren presioarengatik edota bargaren mugimenduengatik. Ondorioz, makina bat ur ihes izaten ziren, udalak konpondu behar zituenak eta ur hornidurari eragiten ziotenak. Lanak despedituta, ur sarea maldaririk handienak dauden 1.200 metrotan polietilenoazko hodia jarri da eta zelaia goa den eremuan fundizioan egindako hodiak. Urari presioa kentzeko neurriak ere hartu dira. Lanek, guztira, 177.370,5 euro (BEZ barne) balio izan dute.



Osasun publikoaren eta lehen arretaren alde Altsasun abenduan egindako bilkura.

## Osasun publikoaren egoera larriari buruzko azalpenak

Asteazkenean, 19:00etan, lortia kultur gunean hitzaldia izanen da Nafarroako osasun plataformak antolatuta

### ALTSASU

Osasun sistema publikoaren oinarri diren lehen arretako osasun zerbitzuen egoera larria salatzen da. Deialdi horiek Nafarroako osasun plataformak deitu izan ditu. Bere kideen iritziz, "Nafarroan, aspalditik, osasun sistema publikoa hondatzen ari da, eta are gehiago Altsasuko osasun eskualdean. Pandemia dela eta egoera larriagotu da eta prekaritate maila oso kezagarria iritsi gara". Egoeraren jatorria osasungintzako pertsonal falta dela nabarmendu dute platafor-

mako kideek. Eta gabezia horrek "gure herritarrek behar duten arreta ez jasotzea" dakar. Eta, horrekin batera, "Osasunbideko langileek lan karga gehiegizkoa daukate eta ezin dira herritarren premiak artatu".

Errealitatea zein den azaltzeko plataformako kide batek eta Altsasuko osasun etxeko langile batek hitzaldia eskainiko dute asteazkenean. Plataformatik gatzigatu dutenez, "ez bagara kapaz gure ahotsa eta protesta administrazioari helarazteko osasun sistema publikoa, erortzen utziko dugu".

### DUELA 25 URTE...



## Lanbide orientazio zerbitzu berria

Cederna-Garalur elkarteak eta CEINek lanbide orientazio zerbitzua sortu zuten Nafarroako Mendialderako. Doako zerbitzua zen. Sakanan zerbitzuan lanean Pili Vicente olaztiarra hasi zen lanean. Bere egitekoa lan arloko orientazio eta aholkularitza ematea zen. Batetik, lan merkatua hobe ezagutzeko informazioa ematen zuen. Bestetik, aukera profesionalak bilatzeko orientazioa eskaintzen zuen. Eta, azkenik, trebatzeko eskaintza egitekoa zen.

# Lan harremanen euskal esparruaren alde egitera

Euskal gehiengo sindikalak manifestazioa deitu du iganderako, 12:00etan, Iruñeko autobus geltoki zaharretik abiatuta. Gobernuak, CCOOk, UGTk eta CEOEk onartutakoa gaitzetsi eta 2010 eta 2012ko lan erreformak erabat indargabetzea eskatzen dute

### SAKANA

ELA, LAB, STEILAS, ESK, Etxalde eta Hiru sindikatuek *Lan erreforma honi ez leloa duen* manifestazioak deitu dituzte iganderako Hego Euskal Herriko hiriburuetan. Sindikatuen ordezkariak, lehenik eta behin nabarmendu dute "hainbesteko garrantzia duen gai baten inguruko erabakiak Madrilen hartzeak agerian uzten ditu EAE eta Nafarroako autogobernuaren mugak. Euskal langileak eta herritarrak ordezkatzeko ez dituzten eragileak hartu dituzte gai horren inguruko erabakiak". Espainiako Gobernuari "hitza bete ez" izana eta 2012ko lan erreforma ez indargabetzea leporatu diote.

Euskal gehiengo sindikaleko kideen iritziz, "adostutako lan erreformak 2010 eta 2012 urteen arteko lan erreformen hezurdu mantentzen du. Langile klasearen pobretzea bilatzen zuten tresna ia guztiak mantenduko dituzte hemendik aurrera ere".



Etzi manifestatzera deitu dute. UTZITAKOIA

Eta bi elementurekin "kezka" azaldu dute. "Batetik, negoziozko kolektiboan estatuko marko inposatzailea mantentzen dute eta ez diote segurtasun juridikorik eman Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan negoziatzen

diren hitzarmenei". Horregatik, "euskal langileek demokratikoki hautatu dituzten ordezkariak bitartez langileen lan baldintzak hobetzeko aukera" nahi dute.

Beste kezka iturria langileen kaleratze prozedurak aldatu ez izana da. "Kaleratze erraza langileei prekarizazio eta ziurgabetasuna eragiteko tresna da". Aldi berean, sei sindikatuek salatu dute "eskubide berriak lortzeko aukera galdu" dela: "berezi larria da erreforma horrek ez jasotzea Etxeko eta Zaintzako Langileak gainerako langileekin erabat parekatzea. Era berean, erreformak ez du bermatzen azpikontratetako langileek enpresa nagusikoek dituzten eskubide berberak izatea, eta ez da lortzen lan beragatik eskubide berberak izatea". Aldi berean, gehiengo sindikalak EAEko eta Nafarroako erakundeei dei egin diete lan harremanetarako esparru propioaren aldeko pausoak eman ditzaten.

## Haur eskolako lan baldintzak hobetzeko aukera ikusi dute

Lan baldintzak hobetzeko, Estatuko lan hitzarmena beharrean udalarena aplikatzea eskatzen dute

### ALTSASU

Abenduaren 10ean eta 21ean bina orduko lan uzteak egin ondoren, LABek Txirinbulo haur eskolako langileak asteazkene-rako grebara deitu zituen. Baina sindikatuak lanuztea bertan behera uztea erabaki zuen. Langileek ezartzen zaien eta "soldata lotsagarriak eta baldintza latzak dituen" estatuko hitzarmena utzi eta udalaren lan hitzarmena ezartzea nahi dute. Horrela "lan baldintzak duindu, eta bizi dugun prekaritatearekin bukatu" nahi dute.



Langileak bilkura baten ondoren. ARTXIBOA

Bide horretan aurrerapausoak ikusi zituzten langileen ordezkariak alkatearekin astelehenean egindako bileran. LABeko kideek azaldu dutenez, "haur eskolako langileek ikusi zuten egun negoziatzen ari den hitzarmen berria aplikatzeko aukera bidegarria dela, eta horrek gatazka desblokeatzera eramane lukeela". Horregatik, greba deialdia bertan behera utzi zuten.

LABek alkateari mahai gainean jarri zion proposamena da prozesu horrek bere bidea egiten duen bitartean, epe motz-ertainean, egun Altsasuko Udaleko gainerako langileentzako indarrean dagoen hitzarmena Txirinbuloko langileei ere aplikatzea. Eta, ondorioz, "horrek ekarriko lituzkeen lan hobekuntzez ahalki eta lasterren baliatu ahalki lituzkeen haur eskolako langileak".

# Eskolako argindar instalazioa berrituko da

Aurreneko faseko lanek 80.000 euroko aurrekontua dute. Ikastetxeko instalazio elektriko guztia berritzeko bigarren fase bat beharko da. Lan horiek heldu den urtean egingen ditu udalak

## ALTSASU

Eskoletan ikaslerik ez dagoen garaia erabiltzen dute udalak beraien jabetzakoak diren eskola publikoetan berrikuntza lanak egiteko. Horretarako, normalean, Hezkuntza Departamentuaren dirulaguntza dute, aurrekontuaren %65. Laguntza jasotzeko eskatu eta proiektua aurkeztu behar da aurretik. Eta horretarako epea astelehenean despeditzen da. Horregatik, Altsasuko Udalak hilaren 19an egindako bilkuran 5.000 euroko aurrekontu aldaketa onartu zuen eskolan egin beharreko lanen proiektua egiteko.

Udalaren asmoa da Zelandi eskolako argindar instalazioa berritzea. Aurten lan horren lehen faserako 80.000 euro bideratu ditu udalak aurrekontuetan. Javier Ollo Martinez alkateak azaldu duenez, "proiektuak instalazio elektriko guztia berritzea aurreikusiko du, beraz, segur aski bigarren fase



Udan patioa berritu zen. ARTXIBOA

bat egonen da, hurrengo urtean egingen dena. Horrela eskola osoko instalazio elektriko berritu arte". Alkateak gaztigatu duenez, "kontutan hartu behar dugu momentu honetan eskolan dagoen instalazio elektriko

eskola eraiki zenekoa dela, hau da, 1977. urtekoa".

## Kontratuak eta lanak

Berriki Altsasuko Udalak bi kontratu eman ditu. Alde batetik, ur kontadoreak irakurtzeaz pertsona bakarrek Aranconta Metering sozietate mugatua arduratuko da. Egiteko horregatik Altsasuko Udalaren 15.525 euro jasoko ditu urteko. Bestetik, orain arte bezala, Jorge Cordon Villar arduratuko da Iortia kultur gune teknika eta bestelako zerbitzuez. Udalak 32.120 euro ordainduko dizkio urteko.

Bestalde, udalak emandako bi lan despeditu dituzte. Alde batetik, Garbitokia eraikinean igogailu berria dago. Orona enpresak jarri du igogailu elektriko berria eta, horregatik, 21.200 euro kobratu ditu. Eta, bestetik, gazte txoko ondoan dagoen skate pista berritu eta porlanezkoa egin du. Haren kostua 22.900 eurokoa (BEZ kanpo) izan da.



Aterpearen itxieraren kontrako bilkura egin zen azaroaren 27an.

## Otadia aterpeak hilaren 14an itxi zituen ateak

Sei langile langabeziara joan dira. Egoitzaren etorkizuna aztertzen ari da Nafarroako Gazteria Institutua

## ALTSASU

Nafarroako Gazteriaren Institutuak hartu zuen aterpea itxteko erabakia. Haren zuzendari kudeatzaile Carlos Amatriain Bustok iraila hasieran azaldu zuenez, "aterpetxeak hilabeteak daramatza erabili gabe. Sukaldea kudeatzeko lehiaketa hutsik gelditu zen, eta elikadura zerbitzua eskaintzerik ez dago. Beraz, ezinezkoa da ostatu hartzea eskaintzea". Amatriainek nabarmendu duenez, "instalazioak birplan-teamendu sakona behar du bere etorkizuna bideragarri egiteko". Gaineratu zuenez, "Altsasuko

Udalarekin, Nafarroako Gobernuak Ondare Zerbitzuarekin eta etorkizunari begira interesa izan dezaketen beste erakunde batzuekin hitz egingen dugu bideragarritasuna emateko".

Itxieraren kontrako mozioa onartu zuen Altsasuko Udalak. Altsasuko hainbat eragilek babesa adierazi zieten aterpeko langileei eta hura orain arte bezala mantentzeko eskatu zuten. LAB sindikatuak itxiera salatzearrekin batera jakinarazi zuen Altsasuko zela Nafarroako Gobernuak zuzenean kudeatzen zuten aterpetxe bakarra.

Gasoleo A ibilgailuentzat  
Gasoleo B nekazaritzarako  
eta kalefakziorako

[www.iparoil.com](http://www.iparoil.com)



**IPAR OIL**

**GASOLEO BANAKETA**

**Sanakako bailara**  
Telf.: 620 143430

Langraiz Oka	Santurtzi	Urnieta
Los Llanos industriagunea 01230 Langraiz Oka (Araba) 945 371358 • 648 250975	Aparkabisa industriagunea 48980 Santurtzi (Bizkaia) 945 371358 • 686 525761	Erratzu industriagunea - 201 20130 Urnieta (Gipuzkoa) 943 330311 • 646 716256

## Elizak Sakanan immatrikulatu dituenak

Herria	Zer	Noiz	Jabea
Aizkorbe	Eliza	2004/06/23	Elizbarrutia parrokiarendako
Urritzola	Eliza	2004/06/23	Elizbarrutia parrokiarendako
Errotz	Parrokia etxea	1979/11/12	Elizbarrutia parrokiarendako
	Parrokia zentroa	1979/11/12	Elizbarrutia parrokiarendako
	Hilerri zaharra	1979/11/12	Elizbarrutia parrokiarendako
	Baratza	1979/11/12	Elizbarrutia parrokiarendako
Izurdiaga	Eliza	2004/06/23	Elizbarrutia parrokiarendako
	Orubea	2004/06/23	Elizbarrutia parrokiarendako
Iruartzun	Ermita	1980/02/07	Elizbarrutia parrokiarendako
	Eliza	2004/06/29	Elizbarrutia parrokiarendako
Etxeberri	Soroa	1980/02/07	Elizbarrutia parrokiarendako
	Larrea	1980/02/07	Elizbarrutia parrokiarendako
	Eliza	2004/06/23	Elizbarrutia parrokiarendako
Egiarreta	Parrokia etxea	1980/02/07	Elizbarrutia parrokiarendako
	Baratza	1980/02/07	Elizbarrutia parrokiarendako
	Larrea	1980/02/07	Elizbarrutia parrokiarendako
	Eliza	2004/06/23	Elizbarrutia parrokiarendako
Etxarren	Orubea	1980/01/16	Elizbarrutia parrokiarendako
	Eliza	2004/06/23	Elizbarrutia parrokiarendako
Ekai	Parrokia etxea	1980/01/16	Elizbarrutia parrokiarendako
	San Lorenzo ermita	1980/01/16	Elizbarrutia parrokiarendako
	Baratza eta zuhaitzia	1980/01/16	Elizbarrutia parrokiarendako
	Eliza	2004/06/23	Elizbarrutia parrokiarendako
Zuhatsu	Eliza	2004/06/24	Elizbarrutia parrokiarendako
Satrustegi	Eliza	2004/06/23	Elizbarrutia parrokiarendako
Hiriberri Arakil	Parrokia etxea	1980/08/20	Elizbarrutia parrokiarendako
	Baratza	1980/08/20	Elizbarrutia parrokiarendako
	Eliza	2004/06/23	Elizbarrutia parrokiarendako
Ihabar	Hariztia	1979/12/20	Elizbarrutia parrokiarendako
	Eliza	2004/06/24	Elizbarrutia parrokiarendako
Irañeta	Parrokia etxea	1979/12/20	Elizbarrutia parrokiarendako
	Baratza	1979/12/20	Elizbarrutia parrokiarendako
	Baratza	1979/12/20	Elizbarrutia parrokiarendako
	Eliza	2004/06/28	Elizbarrutia parrokiarendako
	San Pedro ermita	2004/06/28	Elizbarrutia parrokiarendako
Uhartte Arakil	San Migel ermita	2004/06/28	Elizbarrutia parrokiarendako
	Aralarko santutegia eta lur sailak	1980/10/23	Elizbarrutia parrokiarendako
	Parrokia etxea	1981/01/12	Elizbarrutia parrokiarendako
	Etxebizitza (koadjutorearena)	1981/01/12	Elizbarrutia parrokiarendako
	Orubea	1981/01/12	Elizbarrutia parrokiarendako
	Eliza	1981/01/12	Elizbarrutia parrokiarendako
	Zamartzeko ermita	2004/06/28	Elizbarrutia
	Etxebizitza	2004/06/28	Elizbarrutia
	Etxebizitza	2004/06/28	Elizbarrutia
	Santa Luzia ermita	2007/09/20	Elizbarrutia parrokiarendako
	San Bartolome ermita	2007/09/20	Elizbarrutia parrokiarendako
San Bizente ermita	2007/09/20	Elizbarrutia parrokiarendako	
San Donato ermita	2007/09/20	Elizbarrutia parrokiarendako	

# Elizaren izenean 102 ondasun

Ibarreko 102 ondasun jarri ditu bere izenean Eliza katolikoak, besteak beste, 32 ermita, 28 eliza eta 10 parrokia etxe. Immatrikulazioen %81,37 hiri finkak dira eta gainontzeko %18,62 landa finkak

### Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Nafarroako Parlamentuak foru exekutiboari eskatu zion 1900 urtetik 2021era Eliza katolikoak Nafarroan immatrikulatu dituen ondasunen zerrenda osatzeko. Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua arduratu zen agindua betetzeaz. Horretarako, jabetza erregistroetara jo zuten eta immatrikulazioen eta ondasunen salerosketa operazioen berri jaso zuten. Guztira 2.952 ohar soil bildu zituen departamentuak. Bildutako dokumentazioa Eduardo Santos Itoiz kontseilariak Parlamentuko presidente Unai Hualde Iglesiasen esku utzi zuen azaroaren 23an. Egun hartan Hualdek jakinarazi zuen informazioa Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioen esku utziko zuela, hark udalei jakinarazteko.

Dokumentazioa eman eta gero Nafarroako Parlamentuan egindako agerraldian Santosek herrialdeko datu orokorren berri eman zuen. Eta horrela jakin zen Eliza katolikoak Sakanan, guztira, 102 ondasun immatrikulatu zituela, Nafarroako Ondarearen Aldeko Plataformak 2008an zenbatu zituenak baino 36 gehiago, eta Espainiako Gobernuak 2021ean zerrendatutakoak baino 43 gehiago.

### Xehetasunak

Nafarroan immatrikulatutako ondasunen %3,45 Sakanan dago.

Baina ibarrak dituen 29 herrietatik bi besterik ez daude zerrendatik kanpo: Lizarragabengoa eta Dorrao. Bietan erlijio erabilerako eraikinak kontzejuaren izenean daude. Lizarragabengoaren kasuan eliza, eta Dorraoren kasuan eliza, San Joan Ermita, San Pedro ermita eta Santo Tomas ermita. Zerrendan ageri ez diren beste ermita batzuk dira: Irañeta San Gregorio, Etxarri Aranzako San Adrian eta Andra Mari, Bakaikuk eta Iturmendik partekatzen duten Santa Marina eta Altsasuko Erkuden eta San Joan ermitak. Bestalde, aurretik argitaratutako zerrendatakoa berretsiz, Urdiainek eta Altsasuk partekatzen duten San Pedro ermita (herri bakoitzak ate bat du) Urdiaingo parrokiaren izenean immatrikulatuta dago.

Sakanako 27 herritan jarri ditu Elizak ondasunak bere izenean. Ehunekoei erreparatura, kopururik handiena Arakilen dago, %28,43 (29 ondasun). Bi zifirako kopurua duen beste udalerrria Uhartte Arakil da: %11,76 (12). Gainontzeko udalerrietan zifirak askoz ere txikiagoak dira. Horien ondoren immatrikulazio gehien dituzten udalerriak honakoak dira: Ergoiena %7,84 (8), Etxarri Aranatz %6,86 (7), Irañeta, Altsasu eta Olatzagutia %5,88 (6) eta Arbizu eta Iturmendi %4,9 (5). Gainontzeko udalerrietan 4 im-



Unai Hualdek Eduardo Santosen eskutik jaso zuen informazioa. NG

matrikulazio edo gutxiago daude. Zerrenda berrian Lizarragako eliza bitan agertzen da.

#### Noiz eta nola

Nafarroako Gobernuak 121 urteko tartea hartu du. Jabetza erre- gistroetan jasotako datuen arabe- ra, Sakanako 102 ondasunak zortzi urtetan immatrikulatu zituen Elizak. Espainiako Gobernuak 1998an onartutako 1946 urteko Hipoteka Legearen erreforma eta horrek immatrikulazioetan eragina izan zuen. Ibarreko ondasunen %49,02 (50) 2004ko San Joan egunaren inguruan erregistratu zituen bere izenean Elizak; zehazki, 2004ko garagarriaren 22, 23, 24, 25, 28 eta 29an. Gehien bat elizak eta ermitak jarri zituen bere izenean orduan. Jabetza erregistroan mugimendua handia izan zen 1980ko ilbeltzean, otsai- lean, agorrilean eta lastailean. Urte hartan Elizak immatrikulazioen %27,45 (28) egin zituen. 1979ko azaroan eta abenduan Elizak bere izenean ondasunen %7,84 (8) jarri zituen. Gainontze- ko bost urteetan jarduna txikiagoa da: 2000an %4,9 (5), 1981ean eta 2007an %3,92 (launa), 1903an %1,96 (2) eta 1988an (1).

Elizak ibarrean bere izenean jarritako 102 ondasunak Iruñeko zortzigarren jabetza erregistroan immatrikulatu zituen. Haietatik 83 (%81,37) hiri finkak dira eta

gainontzeko 19ak (%18,62) landa finkak. Haiek eskuratzeko lau modu izan ditu Elizak. Baina erabiliena eskuratzeko preskripzioa izan da. Hau da, ondasun bat (eliza, ermita...) berezkoa balitz bezala edukiz gero, jabearen kontzeptuan, denboraldi jakin batez, eta legezko betekizun batzuk betez, pertsona ondasunaren jabe bihurtuko da.

Modu horren bidez immatrikulatu ditu Elizak Sakanan ondasunen %97,06 (99). Beste hiru ondasunak salerosketa, permuta edo obra berritik bereiztean eskuratu ditu. Iruñea eta Tuterako artzapezpikutzak ondasunen titularra elizbarrutia egin du %4,9an (bost ondasun). Gainontzeko %95,1n (97 ondasun) elizbarrutiaren bidez herrietako parrokiaren izenean jarri ditu ondasunak.

Hamahiru motatakoak dira Elizak bere izenean jarritako ondasunak. Ugarienak ermitak dira %31,37 (32), eta ondoren daude elizak %27,45 (28), parrokia etxeak %9,8 (10), orubeak %7,84 (8) eta baratzak %6,86 (7). Immat- rikulatuen artean launa soro eta larre daude (%3,92 bakoitza), hiru etxebizitza Uharte Arakilen, bi Zamartzen eta bat herrian (%2,94) eta bi parrokia zentro Errotzen eta Altsasun (%1,96). Gainera, Elizaren izenean jarri- ta daude: Errozko hilerri zaharra, Olatzagutiko parrokia zinema,

Herria	Zer	Noiz	Jabea
Arruazu	Eliza	2004/06/25	Elizbarrutia parrokiarendako
	San Pedro ermita	2004/06/25	Elizbarrutia parrokiarendako
Lakuntza	Parrokia etxea	1980/08/18	Elizbarrutia parrokiarendako
	Eliza	2004/06/29	Elizbarrutia parrokiarendako
	San Sebastian ermita	2004/06/29	Elizbarrutia parrokiarendako
Arbizu	San Anton ermita	2004/06/29	Elizbarrutia parrokiarendako
	Parrokia etxea	1980/01/16	Elizbarrutia parrokiarendako
	Orubea	1980/01/16	Elizbarrutia parrokiarendako
Unanu	Orubea	1980/01/16	Elizbarrutia parrokiarendako
	Eliza	2004/06/25	Elizbarrutia parrokiarendako
	San Joan ermita	2004/06/25	Elizbarrutia parrokiarendako
	Eliza	2004/06/22	Elizbarrutia parrokiarendako
Lizarraga	San Andres ermita	2004/06/22	Elizbarrutia parrokiarendako
	Eliza	2004/06/22	Elizbarrutia parrokiarendako
Etxarri Aranatz	San Migel ermita	2004/06/22	Elizbarrutia parrokiarendako
	San Martin ermita	2004/06/22	Elizbarrutia parrokiarendako
	San Donato ermita	2004/06/22	Elizbarrutia parrokiarendako
	San Adrian ermita	2004/06/22	Elizbarrutia parrokiarendako
	Eliza	2004/06/22	Elizbarrutia parrokiarendako
	Baratza	1980/02/07	Elizbarrutia parrokiarendako
Bakaiku	Soroa	1980/02/07	Elizbarrutia parrokiarendako
	Soroa	1980/02/07	Elizbarrutia parrokiarendako
	San Gregorio ermita	1980/02/07	Elizbarrutia parrokiarendako
	Eliza	2004/06/28	Elizbarrutia parrokiarendako
	Kontzezio ermita	2004/06/28	Elizbarrutia parrokiarendako
	San Grerorio ondoko saila	2004/06/28	Elizbarrutia parrokiarendako
Iturmendi	Eliza	2004/06/25	Elizbarrutia parrokiarendako
	Orubea	1980/08/20	Elizbarrutia parrokiarendako
	Eliza	2004/06/29	Elizbarrutia parrokiarendako
	Aritzaga ermita	2004/06/29	Elizbarrutia parrokiarendako
Urdiain	Pilare ermita	2004/06/29	Elizbarrutia parrokiarendako
	San Pedro ermita	2004/06/29	Elizbarrutia parrokiarendako
	Aitziber ermita	2000/10/31	Elizbarrutia parrokiarendako
	San Pedro ermita	2000/10/31	Elizbarrutia parrokiarendako
Altsasu	San Juan ermita	2000/10/31	Elizbarrutia parrokiarendako
	Eliza	2004/06/29	Elizbarrutia parrokiarendako
	Soroa	1903/07/23	Elizbarrutia
	Parrokia etxea	1980/01/16	Elizbarrutia parrokiarendako
	Parrokia zentroa	1988/09/22	Elizbarrutia parrokiarendako
	Otadiako kristo deuna ermita	2000/02/09	Elizbarrutia parrokiarendako
Olatzagutia	Eliza	2004/06/25	Elizbarrutia parrokiarendako
	Eraikuntzadun lur saila	1903/07/23	Elizbarrutia
	Larrea	1980/08/18	Elizbarrutia parrokiarendako
	Parrokia etxea	1980/08/20	Elizbarrutia parrokiarendako
Ziordia	Parrokia zinema	1980/08/20	Elizbarrutia parrokiarendako
	Orubea	1980/08/20	Elizbarrutia parrokiarendako
	San Sebastian ermita	2000/02/09	Elizbarrutia parrokiarendako
	Eliza	2004/06/29	Elizbarrutia parrokiarendako
Mirari ermita	Larrea	1980/08/18	Elizbarrutia parrokiarendako
	Eliza	2004/06/28	Elizbarrutia parrokiarendako
	Mirari ermita	2004/06/28	Elizbarrutia parrokiarendako

# ZURE PUBLIZITATEA

# HEMEN



Informazio gehiago:  
948 564 275 | 661 523 245  
publ@guaixe.eus  
guaixe.eus/publizitatea/





Aitor Ondarra, Aralarko taldekideekin.

## Bederatzi dira txirrindulari afizionatu sakandarrak

**TXIRRINDULARITZA** Aurreko asteko zerrendan Aitor Ondarra falta zen, Latorre taldera salto egin duena

Zortzi ez, bederatzi izango dira aurten amateur mailan izango ditugun txirrindulari sakandarrak, beste aldaketarik ez bada, bederen. Aurreko asteko zerrendari beste txirrindulari bat gehitu behar diogu: Aitor Ondarra Eguaras. Sakana Group-Aralar taldean trebatu den txirrindulari lakuntzarrak Hostal Latorre Ederlan taldean mustuko da afizionatu mailako txirrindulari gisa. Berarekin batera, honako txirrindulari sakandarrak izango ditugu aurten afizionatuen mailan: Iker Mintegi Claver eta Ailetz Lasa Lizarraga Laboral Kutxan; Mikel Olaetxea, Jon Erdozia Gonzalez de Pedrosa eta Martxel Etxeberria Azpilikueta Rural Kutxa-Alean; Iker Cerviño Pueyo Telcom taldean; Andoni Ocaña Goikoetxea Ciclismo Riojanon; eta Jon Gil Velaz Gorum-Cantabrian.

**Etxeberria eta Arrieta Mallorcan** Bi txirrindulari sakandar ari dira Mallorcako Challengean lehiatzen: Kern Pharma taldearekin profesional maila mustu duen Igor Arrieta Lizarraga uharte arakildarra eta Rural Kutxa-Seguros RGA taldeko Josu Etxeberria Azpilikueta iturmendiarra. Biok ilusio handia dute hasi berria den denboraldirako.



Zabaleta eta Elezkanok buru-belarri dabilta lanean azken bi jardunaldiak ahaztu eta suspertzeko. ASPE

## Zabaletak eta Elezkanok lidergoa dute jokoan

**PILOTA** Azkenaldiko bolada txarra atzean uzteko konfiantza dute gaur, ostirala, Lasoren eta Imazen kontra jokatu duten partidarako. Ezkurdia eta Tolosa irabaztera derrigortuta daude, eta Martija eta Altuna lehen postura heltzeko borrokan daude

**Maidar Betelu Ganboa** SAKANA Aurretik estu bazegoen, Binakako Txapelketako hamargarren jardunaldiak are gehiago estutu zuen Txapelketa. Elezkanok eta Zabaletak bigarren partida jarraian galdu zuten, eta nahiz eta lider jarraitu (7 puntu), puntu bakarrera hiru bikote dituzte: Irribarria-Rezusta, Laso-Imaz eta Altuna-Martija. Peña II.a eta Albusuk 5 puntu dituzte, Jaka-Mariekurrenak eta Urrutikoe-txea-Arangurenak launa puntu eta Ezkurdiak eta Tolosak ixten dute sailkapena, bi punturekin. Beraz, lau jardunaldiren faltan, asko dago erabakitzeke.

Txapelketa pil-pilean dago eta asteburuan jokatu den hamai-

kagarren jardunaldia, beraz, emozio handikoa izango da, sailkapeneko lehen postua baitago jokoan. Elezkanok eta Zabaletak Laso eta Imaz izango dituzte aurkari gaur, ostirala, Hendaian. Partidak ikusmin handia piztu du, salgai jarri diren 900 sarrerak ia agortuta baitaude. Aspaldiko partez, goi mailako pilota Hendaia itzuli da. "Hendaiakoa frontoi berezia iruditzen zait. Gustuko dut, zoru azkarra baitu. Pilota ez da indar askorekin ateratzen, baina pilotaleku ona da. Ostiralean gustura etorriko gara horrenbeste zaleen aurrean jokatzerako" azaldu zuen asteazkenean Zabaletak Hendaian, material aukeraketan.

Etxarrengo atzelariak aitortu duenez, Binakakoan "soilik bi partidetan" eman du bere maila. Besteetan kosta egin omen zaio hasi eta buka ondo aritzea. Konfiantza pixka bat falta zaielela uste du, baina suspertuko direla argi du. Txapelketan bikote oso indartsuak daudela dio, eta txapelketa "oso lehiatua eta estua, polita" izaten ari dela. Lasoren eta Imazen kontrako partida "gogorra eta zaila" izango dela aurreikusten du, "Unai oso indartsu" dabilelako, baina azken bi jardunaldietako bolada txarra atzean uzteko konfiantzarekin dago.

Altuna eta Martija Elezkanoren eta Zabaletaren kontra sekulako

erakustaldia ematek iritsi dira hamaikagarren jardunaldira. Behetik gora egin dute, eta gora begira jarri dira. Jaka eta Mariezkurrena izango dituzte aurkari igandean Donostiako Atano III.ean, eta zazpigarren puntua lortu nahi dute bai ala bai. Tentsio handiko partida izango da hau ere.

Txanponaren beste aldean daude Ezkurdia eta Tolosa. Irribarriaren eta Rezustaren kontra jipoi ederra jaso zuten aurreko asteburuan eta finalerdietarako play-offetarako sailkapena oso zaila jarri zaie. Sailkatu ahal izateko, laburbilduta, sailkapenean lau puntu dituzten bi bikote irabazi beharko liekete, tanto averagean gailendu, eta beste emaitza batzuen esperoan egon. Hortaz, Ezkurdiarendako eta Tolosarendako final handiak izango dira ligaxka despeditzeko geratzen diren lau jardunaldiak. Larunbatean, Labriten, bolada oso onean dauden Peña eta Albusuk izango dituzte aurkari, eta dena eman beharko dute ezinbestekoa duten puntua lortzeko. Bukatzeko, Irribarriak eta Rezustak Urrutikoe-txea eta Aranguren izango dituzte aurkari astehenean Beotibarren.

### Bakaikoa-Elizegi, lider

Promozioko Binakako Txapelketan sekulako mailan jarraitzen dute Joanes Bakaikoa eta Iker Elizegik. Aurreko asteburuan hiru tantotan utzi zituzten Zubizarreta III.a eta Eskiroz. Txapelketako lider sendoak dira (9 puntu), Salaberria-Erostarberen aurretik (8 puntu). Larunbatean, Labriten, sailkapenean 5 punturekin hirugarren diren Victor eta Gaskue izango dituzte aurkari, oso lehiatua aurreikusten den partidari.

### 1. AUTONOMIKOA GIZON.

**2. FASEA. 3. JARDUNALDIKO EMAITZA**  
Zirauki- Lagun Artea **0-3**

#### SAILKAPENA

1. MAILA AUTONOMIKOKO JAITSIERA

1 Burladés **30**  
8 Lagun Artea **22**

#### HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN  
16:00 Lagun Artea - Aoiz (Zelai Berr)

#### Lagun Arteak Aoiz hartuko du

Hirugarren garaipena jarraian lortuta, Lagunek laugarren den Aoiz du aurkari.

### 1. AUTONOMIKOA EMAK.

**17. JARDUNALDIKO EMAITZA**  
Altsasu - Berriozar **0-0**

#### SAILKAPENA

1. AUTONOMIKOKO EMAK. 2. MULTZOA

1 Mulier **48**  
10 Altsasu **1**

#### HURRENGO JARDUNALDIA

ZEHAZTU GABE  
Amigo - Altsasu (Amigo)

#### Altsasuk atsedean jardunaldia du

Berriozarren kontra berdindu eta gero, asteburuan atsedean hartuko du Altsasuk.

### FUTBOL PREFERENTEA

**18. JARDUNALDIKO EMAITZA**  
Etxarri Aranatz - Injerto **0-2**

#### SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Injerto **43**  
14 Etxarri Aranatz **16**

#### HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN  
16:00 Bidezarra - Etxarri (Noain)

#### Etxarri, Noainen hiru puntuak lortzera

Jaitsiera postuak atzean uzteko Etxarrik Bidezarraren kontra puntuatu beharko du.

### FUTBOL ERREGIONALA

**16. JARDUNALDIKO EMAITZA**  
Altsasuk atsedean jardunaldia zuen

#### SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 3. MULTZOA

1 Aurrera **41**  
3 Altsasu **31**

#### HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN  
11:30 Berriozar - Altsasu (Berriozar)

#### Altsasuk Berriozar du aurkari

Aurreko asteko atsedendialdiaren ondoren, Altsasu bueltan da, Berriozarren.



Txirrindulariak La Peluso martxako lehen edizioan, 2019an. LA PELUSO

# La Pelusok izena ematea zabaldu du gaur

**TXIRRINDULARITZA** Maiatzaren 8an jokatu da II. Irurtzango La Peluso Zikloturista Martxa. Nobedade gisa, maiatzaren 9an La Peluso Taldekako Erlojupekoa antolatu dute. Izena ematea gaur, ilbeltzaren 28an, zabalduko da

**Maidar Betelu Ganboa** IRURTZUN Aurtan bai. Aurtan La Peluso Zikloturista Martxa arrakastatsua hartuko du Irurtzunek, pandemiagatik azken bi edizioak bertan behera geratu eta gero. Irurtzun Kirol Taldeak antolatuko du maiatzaren 8an 8:30ean abiatuko den proba ez lehiakorra. Bi ibilbide izanen dira: luzea, 138 km eta 2.700 metro-

ko desnibel positiboa duena, Irurtzunen hasi eta Arakil, Basaburua, Goñi, Imotz, Itza, Larraun, Leitzaldea, Malerreka eta Ollon barrena ibili ondoren Irurtzunen despedituko dena; eta laburra, 87 km eta 1.550 metroko desnibel positibokoa. Ibilbideen trackak eskuragarri daude La Pelusoren webgunean.

Gehienez 1.500 txirrindulari-  
rendako tokia dago. 2020 eta 2021 edizioetarako 1.400 txirrindulari inguruk zuten izena emanda, eta gehienek aurtengo ediziorako berrituko dute. Toki gutxi geratuko direnez, izena ematea lehenbailehen egitea gomendatu du antolakuntzak (Rockthesport). Gaur, ilbeltzaren 28an zabalduko da epea.

## Taldekako Erlojupekoa

Aurtengo edizioan nobedadeak izango dira. La Peluso Zikloturista Martxa jokatu eta hurrengo egunean, maiatzaren 9an, I. La Peluso Taldekako Erlojupekoa antolatu du Irurtzun Kirol Taldeak, 10:00etan abiatuko den proba ez lehiakorra. Gutxienez 5 txirrindulari eta gehienez sei izango dituen taldeek eman dezakete izena (taldeko 150 euro, eta federatu gabeko txirrindulari bakoitzarengatik 5 euro). 36 kilometroko ibilbidea egin behar dute, Irurtzunen hasi eta bukatuko dena, Ultzamako itzulia egin eta gero. Talde bakoitzeko lehen bost txirrindulariren denbora hartuko da. Gehienez 50 talde onartuko dira.

## Peluso BTT Xtreme, abuztuan

Joan den urtean La Peluso Zikloturista Martxa ez zen antolatu. Haren ordez Peluso BTT Xtreme proba ez lehiakorra antolatu zuten Irurtzun taldeak, arrakasta handiz. Bi ibilbide egiteko aukera zegoen, eta guztira 340 bikerrek hartu zuten parte. Aurtan abuztuaren 27an antolatuko dute, eta izena ematea ekainean zabalduko dute.

## Hastapenak

2019an antolatu zuten lehenengoz La Peluso martxa. Peluso, Irurtzunen txirrindularitza sustatu zuten Jesus Legarraren ezizena zen, eta horregatik jarri zioten bere izena martxari. 965 txirrindulari eman zuten izena eta guztiz arrakastatsua izan zen. Edizio bakarra antolatuta, jadanik mitikoa bilakatu da La Peluso, martxa antolatzeaz gain, erakusketak, txirrindulariei omenaldiak, bazkaria eta beste harten dituelako. Antolakuntzak Irurtzunen txirrindularitza ho-

rrenbeste sustatu zuten Jesus Legarra "Peluso" eta Pello Alzueta zirenak eta Antonio Martinez Jaunsaras "Chapas" omendu zituen, eta Irurtzunen Reynolds taldea sortu zenaren 40. urterrena buruan, garai haiek gogoratu zituzten. Besteak beste, Miguel eta Pruden Indurain, Arroyo, Sanz, Gorospe, Vidales, Esparza, Errea, Etxabarri, Ocaña, Atxa eta Iza igo ziren oholtzara.

## Aurtengo omenaldiak

Aurtengo edizioak hainbat pertsona eta talde omendu nahi ditu. Batetik Antonio Martinez "Chapas". Martinez 70. hamarkadan Irurtzango Txirrindularitza Taldeko lehendakaria izan zen eta Reynolds taldeko bul-tzatzaileetako bat, eta 2021ean zendu zen. La Pelusoren lehen edizioan bizirik zegoen eta omenaldia jaso zuen, eta aurtengoan, haren faltan, aitortza egingo zaio. Bestalde, txirrindularitza profesionala utzi duen Enrique Sanzek (Kern Pharma), ere aitortza jasoko du. Baita 1981, 1982 eta 1983 urteetako Reynolds txirrindularitza taldeetako txirrindulariek ere. Antolakuntzatik adierazi dutenez, talde horietako txirrindularien %95ek parte hartzea ziurtatu dute; soilik Jose Luis Laguiaren eta Perico Delgadoren konfirmazioa falta da. Bukatzeko, La Pelusok Lakuntzako Aralar Txirrindulari taldea izan nahi du gogoan, urte luzez txirrindularitza sustatzeko egindako lanarengatik.

## GAUR, OSTIRALA, ZABALDU DA IZENA EMATEA ETA AZKAR IBILTZEA AHOLKATU DU ANTOLAKUNTZAK

# Besga, Goikoetxea, Iribarren eta Gaulabur, sarituak

**AUTOMOBILISMOA** 2021eko Nafarroako Automobilismo Txapelketetako sarien berri eman du federazioak

Nafarroako Automobilismo Federazioak 2021eko Nafarroako Automobilismo Txapelketetako sarituak erabaki ditu, eta saritutakoen artean Sakana Motorsport taldeko pilotuak eta kopilotuak daude. Federaziotik

azaldu dutenez, sari emate ekitaldia eta ondoko ospakizunak aurrerago egingo dira, osasun baldintzak hobetzen direnean.

Saritutako sakandarrei dago-kienez, Nafarroako Asfaltoko Rally Txapelketan Eneriz Bes-

ga pilotu olaztiarrak bigarren klaseko pilotu onenaren saria jasoko du eta Javier Goikoetxea kopilotu olaztiarrak bigarren klaseko kopilotu onenaren saria. Lur Gaineko Nafarroako Rally Txapelketan David Iribarren kopilotu onenaren saria jasoko du. Autokrosean Iñaki Gaulabur pilotu ergoendarrak Car Cross mailako bigarren saria jasoko du, eta slalomean Iñaki Gaulaburrendako izango da baita ere monoplaizen kategoriako bigarren saria.



Iñaki Gaulabur. GOTZON MOTORSPORT

2022ko egutegi probisional Nafarroako Automobilismo Federazioak 2022 urteko automobilismo egutegi probisional argitaratu du. Egutegi horretan Sakanan burutzeoak diren hiru proba jasotzen dira: apirilaren 23an Asfaltoko Rallya jokatzeko da Olatzagutian, uztailaren 2an Asfaltoko Rallya Irurtzunen eta urriaren 8an Urbasako Igoera Mendi Txapelketa, Olaztin, beti ere azken orduko aldaketarik ez badago.





2017 urteko Etxarri Aranazko Txakurkrosa. BORJA IZAGIRRE

# Lau sakandar lehian Etxarri Aranazko Txakurkrosaren itzuleran

**TXAKUR KROSA** Igandean jokatu da, 9:00etatik aurrera, Etxarri Aranazko kanpinean. Hiru modalitateetan jokatu da –bikejoring, patina eta txakurkrosa– eta eguraldi eguzkitsua lagun, Triku Trailek ikuskizunaz gozatzera gonbidatu ditu sakandarrak

**Maidar Betelu Ganboa** ETXARRI ARANAZ Azken bi urtetako etenaldiaren ondoren, bueltan da Etxarri Aranazko Txakurkrosa. Igandean, ilbeltzak 30, Etxarri Aranazko kanpinak txakurrekin lotuta egiten den lasterketa bizi eta ikusgarria hartuko du, 9:00etatik aurrera. Triku Trail taldeak antolatu du, Euskanikros elkar-tearen eta hainbat babesleren laguntzarekin, eta lasterketa Euskadiko Txakurkros Ligarako puntuagarria izango da. Aurretik, 8:00etan hasita, txakurrek albaitaritzak kontrolak gainditu beharko dituzte.

Hiru modalitate jokatu dira: txakur krosa, txakurrari lotuta korrika egitea; patina, kirolaria bizikleta normal baten tamainako gurpilak dituen patin moduko batean doa, eta txakur bat edo gehienetan bi patinari tiraka; eta bikejoringa, parte har-

tzailea bizikletan doa eta txakurra hari lotuta. Igandean, bikejoringak eta patinak 9:00etan hasiko dira lanean, eta 10:30ean txakur krosean parte hartuko dutenen txanda izango da. 12:00etan umeendako txakur krosa antolatu dute, kanpinaren barruan egingo dena. "Urtero egiten dugu eta 20 neska-mutiko animatzen dira parte hartzera. Oso polita izaten da" azaldu du Triku Trail taldeko kide eta Etxarri Aranazko Txakurkrosaren arduradun Igor Artieda Galdeanok. Azkenik, sari ematea eta auzatea izango dira.

**"LASTERKETAK IKUSGARRIAK IZATEN DIRA; SAKANDARRAK ANIMA DAITEZELA"**  
IGOR ARTIEDA

## 6 km-ko ibilbidea

Ibilbidea aurreko edizioetako berbera da, partaideek oso gustuko dutena. Kanpinetik aterata, ibilbideak herri aldera jotzen du, Polvorera. Beheko Basoko bidea Soazuiko barruti ingurutik hartuko du, eta gero Artxanera helduko da, Haritz Zaharren Ibilbidera, eta hor beteko ditu ibilbidearen 6 kilometroak, kanpinean despeditzeko. "Ibilbide gehienak zuzen gune luzekoak dira, errebueltak gutxiokoak. Hor txakur azkarrek nolabaiteko abantaila moduko bat dute. Baina gure ibilbidean denetarik dago: zuzen guneak, errebueltak, bidegurutzak, aldapak... eta kasu honetan txakurra eta bere nagusiaren artean dagoen erlazioak du abantaila, izatekotan. Horrelako ibilbide tekniko batean aginduak hobeki betetzen dituen txakurrak emaitza hobea izan

ditzake txakur indartsu batek baino. Horregatik, Estatu mailan oso estimatua da gure lasterketa" nabarmendu du Artiedak.

## Elkar ulertzea, ezinbestekoa

Hiru modalitateetan oso garrantzitsua da txakurra eta bere nagusiaren arteko elkar ulertzea eta txakurrak nagusiaren aginduak ongi betetzea. Baina bikejoringean eta patinetan, are gehiago. "Korrika zoazenean erraza da txakurra okertzen bada sokatik heltzea eta bidea zuzentzea. Bizikletan eta patinean ez dut esango ezinezkoa denik, baina txakurra okertzen bada, frenatu behar izatea gerta daiteke, lurrera joatea... txakurra zuzentzea zailago izaten da. Horregatik diot Etxarriko ibilbidea zaila dela. Oso teknikoa da, aldapa gora, beheara, bihurtzekoak, bidegurutzak... dituelako. Denbora ez galtzeko oso garrantzitsua da gizakia eta txakurraren arteko elkar ulertzea milimetrikoa izatea" azpimarratu du Artiedak.

## Lau sakandar

Azkeneko proban, 2019an, 133 parte hartzaile izan zituen Etxarri Aranazko Txakurkrosak. Orain arte lasterketa abenduan izaten zen, baina aurten ilbeltzera atzeratu dute berez abenduaren 26an antolatzea zegoen artean ez zitzaielako data egokia iruditzen. 100-110 partaide espero dituzte, eta oso kontentu daude.

Tartean lau sakandar daude: Igor Lanz satrustegierra (bikejoringa), Juan Bautista Urtasun urdiaindarrak (patina) eta igandean txakur krosean mustuko diren bi etxarriar, Harriet Artieda eta Israel Arbizu. "Igor Lanz historikoa da bikejoringean. Beti giro onean etortzen den kirolari horietako bat da eta oso pozik gaude gurean egoteagatik. Baita Juan Bautista Urtasunen parte hartzearekin ere, urte luze daramatza" dio Igorrek. Harriet Artieda lehenengoz ariko da. Junior mailakoa da, baina nagusiekin batera aterako da, eta gogotsu dago. Baita Israel Ar-

**LANZ ETA URTASUN BETERANOEK ETA ARTIEDA ETA ARBIZU HASIBERRIEK PARTE HARTUKO DUTE**

bizu ere. "Poztekoa da bi etxarriarrek lehenengoz animatu izana. Israel maila oso onean dabil, eta txakur oso ona du. Aurrean borrokan egoteko aukera asko ditu, baina txakurrak ez du inoiz halako lasterketarik egin eta horrek asko baldintzatu dezake. Txakurrek oso zentratuta egon behar dute, beste txakurrekin liskarretan ez sartzeko, eta elkar ulertzea primerakoa izan behar da. Euren lehen lasterketa izanda, ez dakigu nola aterako zaion, baina izugarri disfrutatuko du, hori ziur" gaineratu du.

Igor Artieda Luna bere txakurrekin aritzen da txakur kros lasterketetan, baina etxeko proban ez da ariko. Abenduan Galdakaoko lasterketan parte hartu zuen, eta duela aste pare bat Zumaiian. "Zumaiian azkenak izan ginen Luna eta biok, baina izugarri gozatu genuen. Sekulako giroa zegoen, lagun askorekin berriro elkartzen hasiak gara, eta oso gustura. Ni txakurrekin disfrutatzea ateratzen naiz, eta lagunekin eta familiarekin egun ona pasatzera. Ez dut makina horietako bat den txakurra. Batzuetan ongi egiten du korrika, beste batzuetan ez hain ongi, –uste dut kuxinetan arazoak izaten dituela–, eta beste batzuetan ni naiz nekatuta nagoena. Ongi pasatzea, hori da asmoa" azaldu du etxarriarrek.

## Eguraldi bikaina

Eguraldi bikaina iragarri dute iganderako eta zirkuitua ere zoragarri dago. "Aurreko edizioetan sekulako ur putzuak eta lohia zegoen. Izotzak ibilbidea lehortu du. Iganderako 0 graduko tenperaturak aurrekusten dira eta hori txakurrendako tenperatura hoberrera da. Beraz, baldintzak ezin hobea dira" dio Artiedak.

Ekitaldi ezberdinak gozatzera gonbidatu ditu sakandarrak. "Haritz Zaharren ibilbideko edozein puntua ederra da lasterketa ikusteko. Eta irteera ere ikusgarria izaten da, tentsio une handikoa, oso zaratatsua eta polita. Beraz, jendea Etxarriko kanpinera etortzea animatzen dut. Lasterketak ikusgarriak dira, oso politak, eta sortzen den giroa ere, ederra. Eguraldiak ere lagunduko duenez, goiz eder-raz gozatzera gonbidatzen zaituztegu" egin du gonbita.



June Kintana Larrazak, jaurtiketa egiteko prest. ASIER COTELO

# Orain arteko denboraldi hasierarik hoberena

**ATLETISMOA** June Kintana Larrazak asteburuan hasi zuen denboraldia, Leonen, 52:34 metroko disko jaurtiketarekin, orain arte egin duen denboraldi hasierarik onena. Hamabost egun barru Nafarroako Neguko Jaurtiketa Luzeen Txapelketa du jokoan

## Maidar Betelu Ganboa BAKAIKU

Asteburuan hasi zuen 2022 denboraldia June Kintana Larrazak disko jaurtitzaila bakaikuarrak. Kintana Leonen egiten ari da albaitaritzak ikasketak eta Leongo Errendimendu Altuko Teknikazio Zentroan trebatzen da, eta asteburuan Leongo atletismo kontrol batean parte hartu zuen, gaztelarrendako euren jaurtiketa luzeen txapelketa autonomikoa zenean. "Hemen zenez, aprobe txatu nuen eta denboraldiko lehen disko jaurtiketa egin nuen. 52,34 metroko jaurtiketa egin nuen, eta, egia esan, oso pozik nago. Uste dut aurtengo orain arte izan dudana denboraldi hasiera hoberena izan dela" aitortu du atleta bakaikuarrak.

Hurrengo erronka hamabost egun barru, otsailaren 5ean eta 6an Iruñeko Larrabiden jokatu den Nafarroako Neguko Jaurtiketa Luzeen Txapelketa izango da. "Leongo kontroleko sentsazioak onak izan ziren, entrenatzen ongi ari naiz, eta ea zer moduz

ateratzen den Nafarroakoa" dio. Lan ona egiteko itxaropena du.

Aurten entrenamenduekin lasaiago ari dela aipatu du Kintanak. Nafarroakoaren ondotik, otsailaren 19an Motrilen jokatu den Espainiako Neguko Jaurtiketa Luzeen Txapelketa du xede.

## Ruben Mendieta txapeldunorde

Larunbatean Zaragozako Hiria Ibercaja Pista Estaliko Atletismo Trofeoa jokatu zen. 800 metroko gizonetzkoen finalean lehiatu zen Ruben Mendieta Alegria olaztiarra (Grupompleo Pamplona At.). Mohamed Attaoui (Atletismo Torrelavega) izan zen azkarrena (1:52.20), eta haren atzetik sartu zen Mendieta, segundo batera (1:53.87).

**"SENTSAZIOAK ONAK DIRA. EA ZER MODUZ ATERATZEN DEN NAFARROAKOA" JUNE KINTANA**

## Nafarroako Pista Estaliko

Igandean Nafarroako Pista Estaliko Atletismo Txapelketa jokatu zen Donostiako Belodromoan, Nafarroan ez baitago atletismo pista estalirik. Bi sakan-darrek hartu zuten parte: Israel Arbizu Albertoetxarriarrak (Hiru Herri), Iraitz Senar Asurabarrena lakuntzarrak (Beste Iruña) eta Isidro Asurabarrena Lopez altsasuarrak (Ardoi). Israel Arbizu gizonetzkoen 1.500 metroko A finalean lehiatu zen eta seigarren sailkatu zen (4:09.49), Atarratze Beñat Rota Villanueva (Hiru Herri) txapeldunetik 10 segundora (3:59.56). 1.500 metro-tako C finalean hirugarren sailkatu zen Isidro Asurabarrena (4:59.38), Iñigo Guinea Pro irabazletik (4:09.34) 50 segundora. Iraitz Senarrek gizonetzkoen 3.000 metroko finalean parte hartu zuen. Lan ona egin zuen lakuntzarrak, bosgarren sailkatu baitzen (9:14.71), Atarratze Beñat Rota Villanueva txapeldunetik 23 segundora (8:51.01).

## Maidar Betelu Ganboa ARBIZU

Sebastian Insausti Goñi arbizuarra Sakanako Zaldi Beltza taldeko xakelaria da taldea sortu zenetik. Taldeak une onak bizi izan zituen: Nafarroako Taldekako Xake Txapelketan lehen mailan aritu izan zen, baina jende faltagatik taldekako txapelketetan aritzeari utzi behar izan zion. Aurten, taldea osatu eta Nafarroako Taldekako Txapelketako hirugarren mailan lehiatu eta gero, bigarren mailara igotzea lortu dute. Urrian hasiko den txapelketarako xakelari gehiago behar dituzte eta eurekin aritzeko gonbita egin diete sakan-darrei.

## Noiz ikasi zenuen xakera jokatzeko?

Arbizun garai batean don Pablo maisuak jende askori erakutsi zion xakean jokatzeko. Niri ez zidan zuzenean irakatsi, baina nire anaiari eta ingurukoei bai. Orduan Arbizon jende askok zekien xakean jokatzeko eta nik ere txikitatik jakin izan dut. Baina txapelketetan hasi... 40 urterekin hasiko nintzen txapelketaren batean jokatzeko.

## Zaila da xakean jolasten ikastea?

Ez da zaila.

## Pieza bakoitzak mugimendu jakin batzuk ditu, estrategia kontua da, eta horrek bere zailtasuna badu.

Dena bezala. Musa edo beste edozein joko bezala. Berez, ez da zaila. Ongi jokatzeko, hori beste gauza bat da.

## Sakanako Zaldi Beltza Taldeko kidea zara. Noiz sortu zen taldea?

Orain dela 20 urte inguru hasi ginen taldean. Hemengo bospasei biltzen ginen xakean, eta bazeuden ere kanpoko bakarren batzuk hemen bizi zirenak eta xakean aritzen zirenak. Elkartu eta taldea atera genuen.

## Zenbait urtetan Nafarroako Taldekako Xake Txapelketan parte hartu zenuen talde gisa, baina utzi zenuen.

Lehen mailan aritzen ginenez, maila nahiko altua, zortziko taldea behar zen. Hainbat jardunalditan astebururo zortzi pertsonak jokatzeko gutxienez 10-12 pertsona behar dira. Eta horregatik utzi genuen, nahikoa jenderik ez guelako. Erretiratuta hainbat urte egon eta gero, aurten berriro bildu eta txapelketan aritzeari ekin genion, azpiko kategoriatik, hau da, hirugarren mailatik hasita. Kategoria horretan lau kidez osatutako taldeak lehiatzen dira eta ongi moldatu gara, gustura. Bigarren mailara igo gara, eta bertan sei kidez

osatutako taldeak lehiatuko gara. Egun bospasei kide gara, maila berrirako kopuru justua, eta jendea behar dugu.

## Berez, bigarren mailako txapelketan partaidetza bermatzeko jende gehiago behar duzue.

Bai, 8-10 kide beharko genituzke. Aurtengo txapelketan Koldo Flores lizerrengotarra, Cesar Razkin etxarriarra, Juan Andres Cerro eta Mikel Castellano altsasuarrak eta ni neu ibili gara, eta espero dugu beste bizpahiru xakelari animatzea eta izena ematea. Gutxienez pare bat behar ditugu.

## Abenduan Iturmendin jokatzeko Sakanako Xake Txapelketan bederatzik sakan-darrek parte hartu zuten, parte hartze polita. Norbait animatzea posible ikusten duzue?

Esperoan gaude, ea animatzen diren. Gainera, aurten mailaz igo garenez... Hirugarren mailan gehienbat haurren kontra aritu ginen, gustura, baina bigarren mailan partida politagoak espero ditugu.

## Nafarroako Taldekako Txapelketa luzea izaten da?

Urrian hasiko da eta zortzi-bederatzik jardunaldi inguru izaten ditu, izena ematen duten taldeen arabera. Bertan parte hartzeko federatu beharra duzu, eta horrek ere ahalbideratzen dizu Banakako Txapelketan edo bestelakoetan aritzea. Jokoaren denborari dagokionez, txapelketa serioak izaten dira. Guk jolastu dugunean, hirugarren mailakoan, bakoitzak ordu bat dauka eta egiten duzun mugimendu bakoitzak minutu erdi bat gehitzen dizu.

## Lehenbailehen taldekide berriak izatea nahiko zenukete, xakelariak behar bezala prestatzeko.

Txapelketetan aritzeko maila bat izatea behar da. Jendea interesatuta egonez gero, gu prest egongo ginatke eurekin biltzeko, trebatzeko eta ahal denean laguntzeko. Ea jendea animatzen den. Deitu gaitzate lasai (634 447 108), eta ikusiko genuke xakelari horiek nola trebatu. Dena den, xakean aritzeko gogoia duenak jakin dezala ia egunero Altsasuko Espejo tabernan jendea xakean jokatzera biltzen dela, bertako nagusia, Ismael Anton, xakelaria delako. Une honetan Sakanan bertan jokatzeko da xakean, eta hor dago aukera.

**Zaldi Beltzakoek xake klaseak ematen dituzue Andra Mari ikastolan eta Etxarri Aranazko eskolan.** Cesar Razkinek eta Koldo Floresek Andra Mari ikastolan xake



Sebastian Insausti, ezkerrean, eta Koldo Flores, eskuinean, abenduan Iturmendin jokatutako Sakanako Xake Txapelketan.

# "Xakea, berez, ez da zaila. Ongi jokatzea, beste gauza bat da"

**SEBASTIAN INSAUSTI GOÑI** ZALDI BELTZA TALDEKO XAKELARIA

**XAKEA** Nafarroako Taldekako Xake Txapelketan bigarren mailara igo da Sakanako Zaldi Beltza taldea, eta maila berrian aritzeko xakelari gehiago behar dituzte

klaseak ematen dituzte, eta nik Etxarri Aranazko eskolan. Koldok urte asko daramatza ikastolan xakea erakusten. Xakearen has-tapenak irakasten dizkiegu neska-mutikoei. Ordu bat izaten da asteen, eta xakean jokatzen ikasten dute. Harrera ona dute ikastaroek, gustura ibiltzen dira. **Egun zer moduzko osasuna du Sakanako Zaldi Beltza Xake taldeak? Badirudi loraldian zaudetela.** Guk jokatzen jarraitzeko esperantza dugu. Herri edo bailara batetik xake talde bat ateratzeak

ilusio handia pizten du, Nafarroako xake talde gehienak Iruñekoak eta Tuterakoak direlako. Une honetan, gu bakarrik izango gara herri txikietatik sortutako taldea. Orvina, Oberena eta San Juan dira klub nagusiak. Obere-

**"TXAPELKETAN ARITZEKO MAILA BAT BEHARREZKOA DA; JENDEA TREBATZEKO PREST GAUDE"**

na eta San Juanen, esaterako, nazioarteko maisuak ekartzen dituzte, ordainduta. **Xake Txapelketa gehienetan partaide gehienak adinez nagusiak diren gizonak izaten dira. Eta gero haurrak. Adin kontraste horrek arreta deitzen du. Eta normalean, oso emakume gutxi aritzen dira.** Bai. Haurrak 16 urtera arte aritzen dira, gutxi gorabehera. Pilotan gertatzen denaren antzera. Gutxi jokatzen duenak, normalean txapelketan aritzeari uzten dio Unibertsitatara sartu baino lehen.

Bere etxean jokatzen jarraituko du, baina txapelketetan ez. Gero, batzuk 30 urterekin edo xakea berreskuratzen dute eta lantzen hasten dira. Izan ere, txapelketak beste gauza bat dira. Txapelketa batean aurpegia eman behar duzu. Pilotan bezala, 22 eta 16 galtzen baduzu, ongi, baina 22 eta 3 galtzea ez da berdin. Inori ez zaio gustatzen barregarri geratzea.

**Xakeak zer ematen dizu?**

Niri xakea gustatzen zait; afizioa dut. Gero hortik zer jasotzen dugun, ba burua landuko dugu zer edo zer. Bueltak ematen dizkiogu, behintzat. Xakea joko nahiko biolento bat da.

**Azkenean bi gudarosteren arteko borroka bat da.**

Hori da, borroka bat da. Eta erakusten dizu arduratsua izaten, jokaldi bakoitzean zure bizia jokatzen duzulako. Esaterako, tenisean tanto bat galtzen duzu, baina hurrengoan irabazi dezakezu. Xakean akats bat egiten baduzu... ia ia izorratu eta zureak egin du.

**Gauzak asko pentsatu behar direla burutu baino lehen. Irakaspen hori?**

Bai, eta arerioari errespetua, eta balore horiek, kirol gehienetan lantzen diren baloreak.

**Teknologia berriek eta Internetak sekulako bultzada eman diote xakeari. Munduko edozein txokotan dagoen beste jokalarri batzuekin jokatzea dezaitez xakean, txapelketa ugari daude...**

Internetek dena aldatu du. Lehen asko jota egoitza batean 100 pertsona biltzen ginen txapelketa batean eta gaur egun egunero daude tokiak momentuan agian 80.000 partida jokatzen ari direnak. Aplikazioan sartu eta zuzenean edonoren kontra joki dezakezu. **Aplikazio horiek erabiltzen dituzue?** Bai, mundu guztiak erabiltzen ditu. Baina hori da xakean jokatzea. Entrenatzea beste gauza bat da. Hor partida oso-oso azkarrak jokatzen dira. Gustura pasatzen duzu baina ez duzu xakea lantzen. Adibidez, akats bat egiten duzu eta partidak jarraitzen du. Agian ez zara jabetu ere akats hori egin duzunik, eta hurrengoan gauza bera egiten duzu. Ez da ikasten, hori da unea pasatzeko.

**"INTERNETEK DENA ALDATU DU; BAINA APLIKAZIOAK XAKEAN JOKATZEKO DIRA, EZ ENTRENATZEKO"**

**Manual potoloak daude, partida eta jokaldiak aztertzen dituztenak.**

Manualak badituzte, baina oso astunak egiten zaizkit. Entrenatu gutxi egiten dugu. Gure taldean xakean helburu jakinak izatea oso zaila da. Egunetik egunera hobeki jokatzea eta dibertitzea, hori da gure asmoa. Baina norbait norabait ailegatzea... ez.

**Oso jakitun eta bereziak zaretanaren fama duzue. Beste maila batean egongo bazinate bezala.**

(Kar, kar...) Ez gaude beste maila batean ezta gutxiagorik ere. Gertatzen dena da xakea buruko jokoa dela. Xakean buruak funtzionatu behar du, ez dute bihotzak eta hankeak funtzionatu behar. Xakean jokalarri ona dena, garbi izan burua ere oso-oso ona duela. Xakean edonork jokatzea dezaitez, baina on-onak direnek beste mundu bateko burua dute, apartekoa.

## Laburrean

**Nor da xakelaririk onena?**

Magnus Carlsen, baina alde handiarekin. Munduko azkeneko sei txapelketak irabazi ditu. Ez da bakarrik ona partida lasaieran, partida azkarretan ere bai. Aurkariak badauzka, baina ia-ia beti lehena da bera. Jokalarri osoa da.

**Txuriak edo beltzak?**

Txuriak, beti ere abantaila pixka bat ematen dutelako, xakean lehendabiziko mugimendua txuriak egiten duelako. Partida hasteko sakea duzu, pilotan bezala.

**Piezen artean, zein gustukoena?**

Denak berdin. Bakoitzak bere funtzioa du. Ez dut holako fijasiorik. Hori bai, nire maniak badituzte. Hobe dut pieza polit batzuk erabiltzea, egurrezko horiek, plastikozkoekin ibiltzea baino.

**Xake joko oso landuak daude, asko museoko piezak direnak.**

Egurrezkoak batzuk ikusgarriak izaten dira. Piezak ez itzultzeko, azpian berunez kargatuta egoten dira. Eskuan hartzen dituzu eta gozamen hutsa dira. Plastikozkoekin, alderantziz...

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

## OSTIRALA 28

**URDIAN** Iñigo Aritza ikastolaren 50. urteurrena: **Basoko sekretuak** ipuin kontaketa musikatua.  
18:00etan, auzoan.

**ALTSASU** Azken ostirala: **Euskal preso eta iheslariak** etxera. Sarek deituta.  
19:30etan, udaletxearen aurrean.

**ALTSASU** Iñigo Aritza ikastolaren 50. urteurrena: **Kukuerreka** kantu poteo taldea.  
19:30etan, Kaluxan.

## LARUNBATA 29

**ALTSASU** *Cinco minutos* antzezlanaren emanaldia.  
19:30etan, lortia kultur gunean.

## IGANDEA 30

**ALTSASU** Arbizuko borden ibilbidea eginen du Altsasuko **Mendigoizaleak** taldeak.  
08:00etan, egoitzatik.

**URDIAN** Sakanako altxorrek **Mintzakideen** irteera: Sarabe bailara – Iruritako gaztelua –

**Aitziber** basiliza – Sanmiguel basiliza.  
09:30etan, igerilekuetan.

**ETXARRI ARANATZ** Etxarri Aranazko Abesbatzaren **Etxarri and Friends** kontzertua.  
Ate irekierak, 18:30etan; kontzertua, 19:00etan, elizan.

**ALTSASU** *Euskal preso eta iheslariak* etxera elkarretaratzea.  
20:00etan, plazan.

## ASTELEHENA 31

**ALTSASU** Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea.  
12:00etan, udaletxearen parean.

## ASTEAZKENA 2

**ALTSASU** Osasun publikoa S.O.S. Nafarroako Osasun Plataformak eta Altsasuko Osasun Zentruko langileen hitzaldia.  
19:00etan, lortia kultur gunean.

## ZINEMA

## ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

*The King's man* gaurkotasunezko filmaren emanaldia

Ostirala 28: 19:00  
Igandea 30: 19:30

*Mendiak 1976* gaurkotasunezko filmaren emanaldia  
Osteguna 3: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

*Delicioso* zineforum filmaren emanaldia  
Igandea 30: 19:30

*El espía honesto* zineforum filmaren emanaldia  
Osteguna 3: 19:00



ETXEPARE SARIAK

### URDIAN Etxepare Saria irabazi duten albumen azalen erakusketa.

Nafarroako Gobernuak euskara zerbitzuek antolatuta.  
Ilbeltzaren 24tik otsailaren 11ra. Liburutegian.



## BAZTERRETIK

ALTSASUKO LIBURUTEGI PUBLIKOAK

## Hiru irakurketa proposamen

**Helduendako: ARRIETA, Bertol. Gezurra berdaderoa** (Elkar, 2021)

Liburu honen atzeko azalean zera esaten du: Nobela bat idazteko eszedentzia hartuta zeukala, bere betiko andregaiak utzi egingo du Koldo, ganora eta konpromiso faltagatik, eta horra non, 44 urterekin, pizzak banatzen hasi behar duen lanean eta pisu konpartitu batean bizitzen. Bakarririk egoten etsi ezinik, norbaitekin nahiko luke endredatu, edonorekin kasik, eta dantzan ibiliko da hiru emakumeren bueltan: Nagore bere pisukide eder, gazte eta malenkoniatsua, Frida artista bizizale eta misterioitsua, Ester bere betiko neska-lagun amultsu eta zentzuduna. Euskal literaturan gutxitan dastatu ahal ditugun ezaugarriak ditu Bertol Arrietaren estreinako nobela honek: orriz orri darion umorea, han-hemen nabarmentzen diren erotismo printzak eta gutzia blaitzen duen bizipoza.

**Gazteendako: ALONSO, Manuel L. Beldurrik gabe** (Begiko, 2021)

"Ezberdina" izateagatik baztertuta, Bittor beldurrez bizi da, besteengan pizten duen etsaitasuna dela eta. Horregatik,

Leonen lagun egitean, edozertarako prest egongo da bien arteko adiskidetasunari eusteko. Istorio ausarta, egiazkoa, nor bere mugak gainditu eta hazteari buruzkoa: "Bizitza ez da erraza besteak ez bezalakoak garenontzat. Baina ez dut uste bizimodu errazena aukeratu behar dugunik, geure buruarekiko zintzoena baizik". Liburu hau gaztelaniaz 2014. urtean argitaratu zen, Manuel L. Alonsok idatzita, eta Iraitz Urkulok euskaraz itzulita 2021.ean.

**Haurrendako: ARRATIBEL GOÑI, Monika (Testua) & ETXANIZ ULAZIA, Xabi (Irudiak). Laino txiki, egizu negar poliki** (Erein, 2020)

Nahiz eta haurrendako zuzenduta egon, edozein adinetarako ere, historia polit eta mamitsu hau txoko honetan ezagutarazi nahi dizuegu, Xabi Etxanizen irudi zoragarriekin, Etxarri Aranazko Monika Arratibelek idatzita. Handiena izan nahi eta malkoak irensten zituen laino baten istorioa da. Laguntasuna, zaintza, umiltasuna baloreak balioan jartzen dira. Nor bere burua onartu eta besteak errespetatuz, elkarrekin koloretako mundu bat sortzea amesten duten lagunengorabeherak.

# Bazkide Zozketa

## ILBELTZEKO SARIAK

**1. SARIA**  
Nerea Balda San Juan (Inurztzun)

**2. eta 3. SARIAK**  
Estitxu Ruiz Razkin (Lakuntza)  
Isabel Arregi Martirikorena (Altsasu)  
Laura Goikoetxea Gabirondo (Iturmendi)

Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com - www.dekovenavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU  
Telf./Faxa: 948 468 360 - Telefono mugikorra: 690 641 860

ESKELA



## Santi Larraza Huarte

(Aitor Irurtzongo alkatearen aita)

Santi, ustekabeen, bat-batean utzi gaituzu. Irurtzundarron nahiak, ametsak eta helburuak betetzen ahalegintzen jarraituko dugu.

**ehbildu**  
IRURTZUN

ESKELA



## Mercedes Martinez de Armañanzas Bañez

Besarkada bat familiarendako

Xegunen launek

ESKELA

## Jose Mari Núñez Fernández

Ez zara inoiz bakarrik joango, Mirotz gogoa da zure arnasa izango

Nerearen lagunak

OROIGARRIA



## Vicente Zelaia Agirrebengoa

IV. urteurrena

Erreza izan zen zu maitatzea, ezinezkoa ordea zu ahaztea. Beti gure bihotzetan

Maite zaitugu

**Etxekoak**  
Altsasu

### ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

## IRAGARKI SAILKATUAK

### LANA/NEGOZIOAK

#### LAN ESKAINTZA

**Altsasuko Amaia kafe-tegarian zerbitzaria behar da:** Asteburuetan eta egun berezietan lan egiteko. Deitu 667 536 395 tfnora.

**Euskal Wikilarien Elkartean langile bila:** Nafarroan langile bat behar dute 6 orduko lanaldia betetzeko. Proiektu honetan Nafarroan Wikimedia-ko proiektuekin harremana duten kultur ekimenak landuko dituzte, eman izena hemen: [bit.ly/3FXmPtl](http://bit.ly/3FXmPtl).

### LEHIAKETA

**Ehuyar Zientzia Azokaren 10. Edizioa:** izena emateko epea zabalik otsailaren 28a arte, Ehuyar Zientzia Azokaren web orrian. 12-18 urte

bitarteko gazteei eta beren irakasleei zientzia eta teknologia proiektuak garatzeko gonbita luzatzen zaie, hala, beren proiektuen barnean, gazteek zientzia eta teknologiako benetako profesionalak ezagutuko dituzte, haiekin abenturak eta bizipenak partekatuko dituzte eta beren lanean bidelagun izango dituzte. 301 ikertzailek eman dute izena proiektuan parte hartzeko, eta gazte taldeek haien laguntza jasoko dute beren zientzia proiektuak garatzeko. Ekainaren lehen asteburuan ospatuko da Ehuyar Zientzia Azokaren ekitaldi nagusia Bilboko Areatzako kaian eta gazteek eginiko lanak aurrez aurre ezagutzeko aukera izango da

### OHARRAK

**Odol emateak Lakuntzan:** Otsailaren 3an, 17:00etatik 20:30ra, animatu.

**Aralarko santutegi ondoan dagoen eraikina (Lakuntzetxe) zaharberritzeko proiektuan lagundu nahi duenak:** ES11 3008 0045 9840 7184 5517 kontu korrontean egin dezake ekarpena. Mezenazgo Legean jasotako proiektua denez, dirua ematen dutenei errenta aitortzen egitean zati bat bueltatuko diote.

**Etxarriko boluntarioek mantak eta konpresak eskatu dituzte Siritara bidaltzeko.** Lagun dezakeen orok Etxarriko boluntariotza gunera eraman ditzala ahalik eta azkarren.

[iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)

[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)

## JAIOTZAK

- **Irai Maiza Mendinueta**, azaroaren 22an Ziordian
- **Nahikari Iraizoz Cuba**, ilbeltzaren 20an Irurtzunen

## HERIOTZAK

- **Daniel Agirre Etxeberria urdiaindarra**, ilbeltzaren 18an Altsasun
- **Santiago Larraza Huarte**, ilbeltzaren 21ean Irurtzunen
- **Josefa Uribe Lezea**, ilbeltzaren 22an Altsasun
- **Isabel Goñi Razkin**, ilbeltzaren 22an Arbizun
- **Jose Maria Nuñez Fernandez**, ilbeltzaren 26an Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



# IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN  
AGUI, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU

Santa Cruz, 6

ETXARRI ARANATZ

Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

# IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

## “Betidanik”

☎ 948 19 70 70

📧 @Grupolrache

📱 Grupolrache

🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



Unai, Mikel, Asier eta Imanol, Uharteko Arakilgo Mendikoa taldeko kideak. UTZITAKOIA

**Erkuden Ruiz Barroso** UHARTE ARAKIL Mendikoa Arakilgo herri despopulatu bat da. Uharteko Arakil inguruan. Herri berria sortzean kalei Arakil aldean zeuden herri despopulatuaren izenak jarri zizkieten, haietako bat, Mendikoa. Azentua o-n jartzen diote uhartearrek. Kale horretan bizi ziren Asier Beltza Arza baxu jotzailea, Imanol Goñi Razkin gitarra jotzailea, Mikel Balda Sanjuan gitarra jotzailea eta Unai Martinez Sebastian bateria jotzailea. Musikaren munduan esperientzia zuten, eta 2019ko udan entseatzeko elkartzeko hasi ziren. Mendikoa taldea sortu zuten.

Goñik bultzatu zuen taldea: beste talde batean aritzen zen eta momentu horretan jo ezinean zebilen, eta Beltzari eta Martinezi "zerbait jotzeko elkartu behar dugu" esan zion. Eta elkartu ziren. Ondoren, Baldari ere parte hartzeko esan zioten. "Berehalakoa izan zen, eta berehala hasi ginen abestiak ateratzen", azaldu du Martinezek. Handik gutxira, Covid-19 birusak eragindako pandemia etorri zen. Baina egoera bereziak ez zuen taldearen jardunarekin amaitu, eta 2021ko udan lehenengo diskoa kaleratu zuten: *Kronosaren diktadura*. Lehenengo kontzertua ere eskaini zuten Uharteko Arakilen, lagunen artean.

"Aurrekoan gure musika estiloari buruz hitz egiten aritu ginen, eta zaila da estilo batean kokatzea. Rock-aren inguruan". Diskoak zazpi abesti ditu, eta

# Mendikoa kaleko doinuak

Uharteko Arakilen duela bi urte inguru lau lagun lokal batean bildu ziren musika egiteko eta ongi pasatzeko. Entsegu horietatik Mendikoa taldea sortu zen; 'Kronosaren diktadura' diskoa kaleratu dute eta zuzenekoak ematen hasi dira

bakoitza "desberdina" dela azaldu du Baldak: "Batzuek indie-rock kutsua dute, beste batzuk metaleroagoak dira, stone rock ere badago...". Abesti instrumental bat ere badute, vals zati bat ere badutela esan du Martinezek: "Ez da berez vals-a, indartsuagoa da eta rockera eramandakoa, baina bat-bi-hiru eskema ikusten da".

## Lokalean

"Nik solfeoa ere ez dakit eta batzuetan melodia bat datorrit burura eta telefonoarekin txistuaren bidez grabatzen dut, eta

**ZAZPI ABESTI GRABATU DITUZTE, ETA ELEMENTU AMANKOMUNA "DENBORA" DA**

hor uzten dut grabatuta. Pare bat hilabete pasata entzuten dut berriz, eta gustatzen bazait lokalera eramaten dut". Baldak "benetako musikara" eramaten duela esan du Martinezek. "Batzuetan zerbait ateratzen da". Ez dira beste taldeetan oinarritzen, eta noizbehinka beste abesti batzuekin antzekotasuna somatu izan diete "baina nahi gabe egiten dugu".

Abestiak taldearenak dira. Guztien artean sortzen dituzte. Batek lokalera ideia bat eramaten du, eta horren gainean lan egiten dute, edo "desegiten" dute, Beltzak esan bezala: "Horrik tiratzen dugu". Letrak ere guztien artean sortzen dituzte. Martinezek azaldu duenez, aldi batean batek eramaten du letra bat, gero beste batek... "Gero buelta bat ematen diegu, errepasatzen ditugu, eta gauzak

aldatzen ditugu musikarekin bat egiteko".

## Kronos

"Esperientzia" kontuagatik agian, eta diskoaren izenburuan aurreikus daitekeen bezala, abesti guztiek amankomunean duten elementua denbora dela esan du Baldak. "Denboraren ideia hori. Denborak garrantzia dauka gure bizitzan. Denboratik ez dugu gehiago entseatzeko, denbora pasa ondoren hasi gara denbora pasa bezala berrir jotzen...". Letra politikak, ez mingarriak eta zerbait adierazten

**ZUZENKOETAN DISKOAN BAINO "ASKOZ HOBETO" ENTZUTEN DELA ESAN DUTE**

dutenak egiten saiatzen direla aipatu du Martinezek. "Ez dira 18 urterekin egiten genituen letrak. Agian sakonean bai, baina beste modu batera adierazita". "Agian ez dira hain zuzenak", gaineratu du Beltzak. Nerea Balda Sanjuan idazlearen, Mikelen arrebaren, poema bat ere abesti bihurtu dute. "Letra txukunenetakoa da".

2019ko uda horretan entseatzeko hasi zirenean, "espektatibarik" ez zuten. Ez, behintzat, oso altuak. "Momentu batez elkartu, eta musika jo", esan du Beltzak. "Hasieran aspiraziorik handiena astean behin entseatzeko elkartzea zen. Gogoratzen dut Imanolek esaten zuela ez zela derrigorrezkoa ere. Gero, bai. Gelditu behar genuela esaten zigun". Orain espektatibak ez direla asko aldatu esan dute.

"Azkenean ikusi duzu zerbait polita sortu dugula eta jotzeko grina ere badugula. Ongi egin nahi dugu, entseatzeko dugu, baina handinahirik gabe". Lana eta familia dute, eta ahalegin "handirik" ez dutela egiten esan du Martinezek. Esaterako, ez dituzte sare sozialetan profilik sortu. "Helburu nagusia da ongi pasatzea musika gustatzen zaigulako, eta gauza txukunak egitea". Astean behin elkartzeko helburua betetzen dute, azken aldi bitan ere elkartzeko direla esan dute, "kontzertuak eskaintzen" hasi direlako.

## Zuzenekoak

Kontzertu bakarra eskaini du, momentuz, Mendikoa taldeak. Uharteko Arakilen egin zuten, "lagunen artean". Bigarrena gaur izanen du, Gasteizko gaztetxean. Ikus-entzuleekin hitz egin ondoren "subidoi" antzekoa izan zutela aitortu dute. Jendeari gustatu zaio. "Zuzenekoan, nik susmoa banuen lokalean nabaritzen dudalako, askoz hobeto entzuten da, diskoa baino", esan du Martinezek.

*Kronosaren diktadura* diskoa Iruñeko Mutu estudioan grabatu zuten, eta ehun bat kopia kaleratu zituzten. Diskoaren formatuak eztabaida sortu zuen, "lagunen artean banatzeko eta guretzako, polita da izatea eta letrak ikustea". Uharteko Arakilgo Anaiak tabernan eskura daiteke, baita Altsasuko Idergi tabernan ere.

**Erkuden Ruiz Barroso** ALTSASU

Gorputzarekin adieraztea. Hori da Ander Chamorro Aldasoro altsasuarraren helburua. Aktore izan nahi zuela bazekien, baina "beldurragatik" ametsa alde batera uztea ere pentsatu zuen. Agertoki baten gainean zegoela jakin zuen zein zen bere ibilbidea. Madrilera bizitzera joatea ere ez zen nolanahi hartutako erabaki bat. Bertan arte eszenikoen mundua handia da. SCAENA-Carmen Roche arte eszenikoen eskolan antzerki musikaleko graduko bigarren maila egiten ari da orain. **Zergatik antzerki musikala ikasi?** Galdera zaila da. Txikitatik jakin izan dut artea nire bizitzan egoitea nahi nuela. Asko gustatzen zait eta nire gorputzarekin, nire hitzekin, jendeari zerbait transmititzea gustatzen zait. Ni ikustea eta haien buruan klik egitea. Hori da nire helburua.

**Zertan datza ikasketa hori?**

Hiru diziplinak batzen ditu: interpretazioa, kantua eta dantza. Ohikoena gero musikal batean lan egitea da. Baina atek irekiak daude dantzari izateko, telebistako aktore, antzerkia, baita kantua ere. Ikasketa osoak dira. Ikuspuntu orokor bat ematen dizu. Zortea izan dut hiru diziplinak asko gustatzen zaizkidalako.

**Aktore izan nahi duzu?**

Betidanik jakin izan dut aktore izan nahi nuela. Baina ikasketak aukeratu behar nituenean itsas biologia, matematika, enpresa administrazioa eta horrelakoak egitea pentsatu nuen. Azkenean, Altsasu herri txiki bat da, eta ez daude aktore izateko aukera asko. Baina zergatik ez? Nire gorputza eta benetan zer nahi nuen entzun nuen, eta antzeztu nahi nuela pentsatu nuen. Lehenengo gauza Iruñean arte eszenikoetako baxilergoa ikastea izan zen. Bertan musikal bat egin nuen, eta eszenatokian nengoenean esan nuen: "Hau da nire bizitzarako nahi dudana". Hor inflexio puntua izan zen. Interpretazioa ikasten hasi nintzen, baina gero antzerki musikalera aldatu nintzen.

**Nolakoa da zure ikas egun bat?**

Eromen handia da. Bertan egun osoa pasatzen dut. Ballet, jazz, kantua, interpretazioa, akrobazia, esgrima... Irakasgai teorikoak ere baditugu literatura eta dramaturgia, adibidez. Bertan bazkaltzen dut, noski. Burua oso ongi zaintzea ezinbestekoa da. Zure gorputzarekin lanean ari zara, eta gorputzari etengabe gehiago eskatzen.

# "Eszenatokian jakin nuen hau nire bizitzarako nahi nuela"

**ANDER CHAMORRO ALDASORO** AKTOREA ETA DANTZARIA

Txikitatik arte eszenikoekin zerikusirik zuen zerbait eginen zuela bazekien eta, orain, antzerki musikala ikasten ari da Madrilan



Ander Chamorro Aldasoro aktorea. @MARTACVFOTOGRAFIA

Ander oso desberdin bat naiz ate horregatik sartu nintzen lehenengo egunetik gaur egun arte. **Zein diziplinarekin gelditzen zara?** Aurreko egunean ikaskide batekin honen inguruan aritu ginen. Egia da ni hobeki sentitzen nai-

**"DANTZAK ETA INTERPRETAZIOAK NEURE BURUAREKIN KONEKTATZEN NAUTE"**

zela dantzatzen eta antzezten, abesten baino. Dantzak eta interpretazioak neure buruarekin konektatzen naute, eta helarazi nahi ditudan mezuak hobeki islatzen ditut. Oso fisikoa denean asko gustatzen zait. Interpretazioan beste pertsonaia batzuei ahotsa emateak badauka zeure burua ezagutzeaz asko, zure emozioetan bilatu behar duzu. Horretarako erraztasun handia daukat. Askoz erosoago sentitzen naiz.

**Eta etorkizunean, beraz, zer nahi duzu izan?**

Etorkizuna... Oraintxe bertan, badakit ahal dudan guztia ikasi eta jaso nahi dudala. Bai unibertsitatean bai bizitzan. Antzerki musikalaren mundu honetan sartzen ari naizenez, saiatuko naiz ahal dudan guztia ematen, ahalik eta aldakorrena izaten. Azkenean, ez dakizu nondik joko duzun, eta horregatik hobe ahalik eta tresna gehien hartzea. Zer espero dudan? Noski, musikal batean lan egitea edo. Egia esan, ez dakit dantzatzen, antzezten edo abesten izanen den, baina eszenatoki baten gainean ikusten dut neure burua.

**Familiak zer esan zizun?**

Zorte handia izan dut. Hasieratik babestu naute. Ez didate baina bakar bat atera. Ekonomikoki ere zorionez aukera izan dut. Jende askok ezin du egin, ekonomikoki ezin duelako, eta oso triste iruditzen zait. Batzuetan

ez dute oso ongi ulertzen zer ari naizen egiten, baina pixkanaka ulertuz joanen dira. Oroitzapen oso polit bat daukat, hasieran nire amak bakarrik hemen eta hor mina nuela entzuten zidala, eta esan zidan: "Baina zerbait ona izan beharko du, ezta?". Erakustaldi batera etorri zen, eta bukatzerakoan negarrez niregana etorri zen eta besarkatu ninduen. Niretako hori ongi egiten ari naizenaren seinale zen. Beraie dena zor diet.

**Honetan lan egin duzu?**

Bai. Orkestra batean dantza egin dut, musikal ikuskizun bat zen. Iragarkiak ere egin ditut. Pixkanaka bidea egiten ari naiz. Azkenean, saiatua bazara eta lan egiten baduzu, gauzak iristen dira. Ez dut presarik, baina pixka bat frustragarria bada.

**Galdera ohikoa izaten da, irteerak?**

Irteerak baditu, eta asko. Badi-rudi mundu itxi bat dela eta egia da zaila dela. Baina gauza bat da irteerak ez izatea eta beste gauza bat da zaila izatea. Etengabe ari dira gauzak sortzen; kultura etengabe mugitzen ari da. Bertan egon behar zara. Sakoneko lasterketa bat da. Konstantzia behar da, eta orduan gauzak ateratzen joaten dira. Ni ez naiz hemendik bizi, baina konfiantza badut; ezagutzen dudana guztia posible ikusten dut.

**Kastinak egin dituzu?**

Bai, pixkanaka ari naiz. Artistek dugun beste gauza bat iruzurtiaren sindromea da. Inoiz ez naiz prest egonen pentsatzea. Eten-gabeko trebakuntza prozesu bat da. Gehiago ikasiko dut, gehiago prestatuko naiz, itxoingo dut... Baina ez. Ez da itxoin behar. Aurreko egunean irakasle batek esan zigun lanik ez badago, guk sortu behar dugula. Artistak gara sortzen dugulako. Rosaliari erreferentzia eginez, berak esaten du diru asko utzi zuela, eta hasieran dirua galtzen zuela, baina orain begira non dagoen. Nahiago dut honetaz bizi, gustura egon, eta aberatsa ez izatea, poltsikoak beteta izatea baina gustatzen ez zaidan edozertan lan egitea baino.

**Beste estereotipo bat da lehiakor-tasun gogorra da. Egiazkoa da?**

Zoritzarrez, ezetz esatea gustatuko litzaidake, estereotipo bat dela. Baina, bai, egiazkoa da. Jende gaiztoa dago eta jende oso ona ere. Leku guztietan egonen da jendea hondoratzen saiatuko dena.



Xabier Goikoetxea, Eduardo Urrestarazu Fernandez eta Mario Gastaminza Mans, San Anton kofradiako buruzagiak.

# "Ardura pixka bat sentitzen duzu"

Bi urte akta libururik gabe egon ondoren, sanantondar bakaikuarrak larunbatean kofradiaren hirugarren akta liburua eta hura gordetzen duen zurezko kutxa mustu zituzten. Eduardo Urrestarazu Fernandez beleroak eman ditu azalpenak

Alfredo Alvaro Igoa BAKAIKU

## 1 Larruzko tapak eta paper berezia behar zituen akta liburuak?

Bai. Kofradiaren hirugarren akta liburua da mustu duguna. Ohore

bat da liburua mustutzea. Oso garrantzitsua da, tradizioa jarraitzeko, horrelako gauzak izatea. Ana Jensen Madrilgo artisauari enkargu berezia egin genion, eta emaitzarekin nahiko kontentu

gelditu gara. 954 euro balio ditu eta lastailean iritsi zen.

## 2 Txarok dendan halakorik ez du saltzen, ezta?

Zoritxarrez ez. Horrelako liburua

behar dugu, irauten dutelako. Aurrekoak, zehazki, 161 urte iraun zuen. Gaur egungo tinta, boligrafoak-eta arazo bat dira, desagertzen da. Paper berezi bat izan behar duzu idatzitakoa mendeetan irauteko. Horregatik, liburu hau eskuratzeko nahia. Akta liburuan guztia ongi zehaztea behar dugu, hurrengo belaunaldiendako. Eta horregatik eskuratu dugu halako akta liburua. Izan ere, gaur egungo akta liburua batean, 50 urte pasata, ezin da ezer irakurri tinta desagertzen delako. Eta, egia esan, arazo bat da.

## 3 Eta zergatik ez ordenagailu bat aktak hartzeko?

Gogoratu zer gertatu zen bideoaren VHS sistemarekin. Nik etxean zinta batzuk ditut eta ezin ditut erreproduzitu, ezin ditut ikusi. Arazo bat da, eta informazio pila galtzen da. Ordenagailuekin beste horrenbeste gertatzen da. Nork ez ditu makina bat argazki ordenagailu batean? Istripu bat edo ordenagailua galdu, eta akabo argazki guztiak! Kasu honetan gauza bera gertatuko litzateke. Horregatik, horrelako akta liburu berezi bat behar dugu.

## 4 Zenbat orri ditu akta liburu berriak?

Ia 200 orri ditu. Lehen aktak soilik gaztelaniaz hartzen ziren. Gaur egun, berriz, euskaraz eta gaztelaniaz idazten ditugu. Geroz, ehun urte inguru iraunen du, hortxe ibiliko da.

## 5 Halako liburu batek kaligrafia zaindua eskatzen du?

Bai. Lehendabiziko liburuan eta bigarren liburuaren zati handi batean aktak idazteko arduradun bat zegoen beti, kaligrafia berezi bat zuena. Ondoren urteko maiordomoak akta idazteko ohitura hartu zen. Eta garai horretan denetarik ikusten zen: kaligrafia oso txarra, ez da ezer ulertzen... Azken bost urteetan Javier Negrin anaia ari da akta guztiak pasatzen. Kristoren kaligrafia du, eta, gainera, lumaz idazten ari da. Egia esan, oso txukun eta oso polita gelditzen da.

## 6 Eta mustu duzuen egurrezko kutxa hori, zergatik eta zertarako?

Liburu bakoitza zurezko kutxa banatan gordetzen dugu. Zer gertatu zen? Lehendabiziko liburua ehun urte baino gehiago galduta egon zen. Apaiz etxe zahar batean opatu genuen, eta oso baldintza kaxkarretan zegoen. Eta eskarmentu horrekin erabaki genuen liburu bakoitzarendako egurrezko kutxa bat egitea, han gordetzeko. Beti kutxa nahikoa berezi bat egiten dugu, San Antonen motibo guztiakin grabatuta.

## 7 Zeinek egin du kutxa?

Juan Jose Urrestarazu anaia. Eta jende guztia nahiko kontentu gelditu da horrekin.

## 8 Zer sentitzen da halako liburu bat mustutzean?

Bi gauza. Alde batetik, harrotasuna. Guri tokatu zaigu. Baina baita ardura. Hor ikusten da kofradiaren jarraipena, zenbat belaunalditan egon diren bakaikuar asko eta asko San Anton omentzen. Baita beraien hildakoen alde otoitz egiten ere. Halako kofradia bati jarraipena nola eman, horregatik ardura pixka bat sentitzen duzu.

## 9 Bakaikuarren genealogia osatzeko lagungarriak izan daitezke liburu horiek?

Bai, nahiko zehatza da. Hor ikusten dira gaur egungo abizen asko eta asko: Lopez de Zubiria, Fernandez de Garaialde, Zelaia...

## 10 Emakumeren bat agertzen da liburuetan?

Momentuz ez. Baina eskatuz gero aztertuko genuke eta guztion artean erabakiko genuke. Ziur aski denetarik iritziak egonen dira. Jendeak nahiko normal hartzen du gaia, eta ez dut uste inolako arazorik izanen zenik emakumezkoak sartzeko. Tradizioagatik izan dira gizonezkoak kide. Gainera, kofradiaren sorrerako 13 kapituluetan edo arauetan ez da ezer agertzen kideen generoari buruz.

## 11 San Antondik San Antonera, liburuak lo gelditzen dira?

Bi liburu zaharrak elizan gelditzen dira. Eta erabiltzen den liburua maiordomoaren ardurapean gelditzen da urte osoan. Maiordomoa aldatzean etxe batetik bestera pasatzen da liburua.

## 2022-2023 MATRIKULAZIO KANPAINA

Behar duzun material guztia:  
kartel, triptiko, liburuxka,  
amantalak, eskola materiala...

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe



DISEINUA ETA  
KOMUNIKAZIOA

f o

919 821 436  
info@gikomunikazioa.eus  
www.gikomunikazioa.eus  
Foru plaza, 23 1. Aldean

